

Kultura

52. Durangoko Azokako kartelaren aurkezpena egin du, asteon, Gerediaga Elkarteak. Jose Antonio Sistiaga artistak egindakoa da. > 11



Sarrionandia, lau haizetara

Sarrionandiagaz akordatzen den herria da lurreta, sorterriko idazlea irakurtzen eta sentitzen duena. Bere lana aitortuko dute, poemak bafleetatik zabaldua. Gainera, lagun, artista eta herritarren testigantzak jasotzen dituen dokumental bat estreinatuko dute. > 2-3



Argazkia: Leñor Elorriaga

“Askatasuna eta autonomia arduragaz daude lotuta, eta ardurak esan gura du albokoa aintzat hartzea”



Tinus Wijnakker | Hezitzailea > 10

Durangoko jaietan Mozorro Eguna ospatuko dute bihar

Mozorro Eguna ospatuko dute bihar Durangon, San Fausto jaietako egun handietako bat. Errepikapeneko asteburu izango da gaurtik aurrerakoa, lehen asteburu luze eta udatiar baten ostean. Jai jendetsuak izan dira orain arte, soilik eraso sexistek ilunduak. Emakume biri egin zieten eraso, eta protesta egiteko mobilizazioak egon ziren 13an, gaez. > 5

DIAGNOSI-PROBAK:

Ekografiak / Mamografiak /
Fluxumetriak / Ortopantomografiak / Dentsitometriak /
RX Erradiologia / Garezurreko telerradiografia lateralak /

Sedazio bidezko gastrokopiak /
Sedazio bidezko kolonoskopiak /



Askatasun etorbidea, 23 - DURANGO / Tel.: 946 816 450 - 946 818 181

www.centromedicoezkurdi.com

Iurreta > 4

Iurretako N-634 errepidea zeharbide bihurtu gura dute

Elorrio > 7

Herritarrekin elkarlana sustatzeko aplikazioa sortu dute

Zornotza > 8

Egoitzetako grebalarrien etapa Zornotzan hasiko da gaur

Zaldibar > 9

Durangaldeko bertso eskolen jaia egingo dute, urriaren 27an

Herririk herri

‘Hemen eta Han’, Sarrionandiaren obran eta bidean murgiltzeko

Idazle iurretarraren lan literarioa aitortzeko jardunaldiak prest dira

ERREPORTAJEA M. Onaindia
Kartzelatik bafle baten barruan ihes egin zuen poetaren letrak Iurretako bafleetan entzungo dira datozen egunetan. Herritarrek lau haizetara zabalduko dituzte Garaizarko semearen berbak. Errezitaldiak, berbaldiak, ibilaldiak... Joseba Sarrionandia Uribelarreari (Iurreta, 1958) esker ona adierazteko eta bere lan literarioa aitortzeko jardunaldiak prest dira. Udalak hainbat elkarteren eta artistaren laguntzagaz

antolatu ditu ekitaldiak, hilaren 24tik 28ra.

Joseba Sarrionandia, Hemen eta Han dokumentala ikusteko aukera egongo da hilaren 28an. Peru Magdalena idazleak eta Pello Salaberria bideogileak sortu dute, Garaizarkoaren lagunen, artisten eta herrikideen testigantzetan oinarrituta, 27 pertsona guztira. Esaterako, Iurretako irakurle klubeko ume batzuek ere parte hartu dute. Bere ibilbide kulturala kontutuko dute, Euskal Herrian eta

Habanan kokatuta, *Hemen eta Han*, egun Kubako hiriburuan bizi baita iurretarra. Magdalenak dioenez, interesgarria izan da “bizitza fokuetatik ihesean eman duen batengan fokua ipintzea”. Hala ere, zerbait freskoa egin gura izan dute, mitifikaziorik barik. Hunkitu egiten da irudiak ikustean. “Ez dakit zenbat bider negar egin dudana, konturatzerakoan zer egiten gabiltzan”.

Sarrionandiaren bizitzak lotura estua du bere lanean,



Joseba Sarrionandia eta Garaizarko beste zenbait ume, txikitan. Joseba, behean, ezkerretik hasi

baina, Magdalenaren ustez, unibertsaltasun bat ere eduki du beti, “goi arnas bat”. Edo-

zelan ere, iraganeko mitoak obraren garrantzia baldintzatu duela uste du. “Ez gara kon-

“Autoreak baino gehiago, irakurleak imajinatzen duena da liburua”

Sarrionandiaren literaturak Iurretako kaleak bustiko ditu datozen egunetan

ERREPORTAJEA M. Onaindia
Duela urte bi eskaintako elkarrizketan kontatu zigun idazmakina zahar bat duela etxean, tekletako letrak borrotuta dituena. Baina, irakurle sentitzen dela idazle baino gehiago. Bide horretatik, jardunaldiek eragindako sentsazioez gainera, literaturaz go-goeta egin du hurrengo le-rootan, eta gomendio batzuk ere badakartza. Habanatik (Kuba) izkiriatu eta bidali ditu erantzunak sorterrira, li moi ura erabiltzeko beharrik barik, 2016ko azaroaz geroztik publikoki jarduten baitu jendarean. Hiriburuko unibertsitatean Euskara irakurle dabil, eta

idea berriak ere baditu mahai gainean.

Hainbat jende inplikatu da datozen egunetan zure esker oneko jardunaldietan. Zelan sentitzen zara?

Ez dakit merezi dudana orain arte idatzitakoagatik, espero dut merezi izatea hemendik aurrerakoagatik. Jardunaldietan parte hartuko dutenen artean badaude nik baino gehiago merezi dutenak, frankismoa amaitu orduko, kultura debekuetatik ateratzen ahalegindu zen jendea: niri euskaraz leitzen erakutsi zidanetako bat, esate baterako, Marisa. Baten bati ipintzen zaio kartela, baina euskaldunen

“*Parte hartuko dutenen artean badaude nik baino gehiago merezi dutenak*”

“*Inpostore bat bezala sentituko nintzateke, ze omenduak liburuak dira*”

erresilientzia oso kolektiboa eta anonimoa izan da.

Urrutitik jarraitu beharrek pena ematen dizu?

Ez, lotsa itzela pasatuko nuke. Gainera, inpostore bat bezala sentituko nintzateke, ze omen duak liburuak dira. Biblioteka batetik sortu da ideia, eta ondo dago liburuak izatea motiboa eta gaia.

Liburuak inportanteak dira?

Liburua berez ez da ezer. Karpa baten barruan bizi gara, medio nagusietatik irudi, mezu, informazio eta historia faltsuz bombardatzen gaituzte, bizi garen zirkua beste aukerarik ez balego bezala, liburuak ere kontsumogaiak dira hor karparen barruan. Hala ere, liburu ondo jaurti batek zulo bat egin dezake oleanean akaso. Baina, autoreak imajinatzen duena baino gehiago, irakurleak imajinatzen duena da liburua. Liburuaren pentsamendua irakurleari pentsarazten diona da.

Baduzu idazlan berririk esku artean?



Sarrionandia, Habanan, 2016ko azaroan argitaratutako

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2017ko urriaren 20a
14. urtea - 694. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza, Nagore Txinturreta Isasi eta Alazne Salcedo Artetxe. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



sifa laugarrena.

turatzen ze ona, indartsua, emankorra den bere obra”, adierazi du.

20 poema zati, Iurretako 20 izkinatan


Garaizar auzoan 1958an jaiotako poetak ihes egin zuen kartzelatik 1985ean, eta 31 urtez ezkutuan bizi izan da, erbestean. Ez zegoen bere bizimoduaren berririk, ezta argazki eguneraturik ere, 2016ko azaroan Habanan publikoki agertu zen arte. Hori bai, bere idazkiak eta ahotsa presente egon dira urte guztiotan. Hain zuzen ere, bere berbek Iurretako kaleak koloreztatu dituzte. Izan ere, Peru Magdalenak instalazio poetiko bat ezarriko du herri-gunean, hogeit hamar esaldikoa, hogeit hamar leku, kantoi edo izkinatan.

“Kalea edertzeaz aparte, bere obra presente egitea eta normalean heltzen ez den jendearengana helduaraztea gura dugu, jakingura bat sortzea”, esplikatu du Magdalenak. Instalazio poetikoaren mapa eskuorrietan banatuko

“Normalean heltzen ez den jendearengana helduaraztea gura dugu, jakingura bat sortzea”

dute, jendeak bakoitza non dagoen jakin dezan. Denerikoak izango dira, eta Sarrionandiagaz beragaz adostuak, gainera. “Esaldi batzuk oso ezagunak dira, kamiseta eta hormetan ikusi ditugunak. Beste batzuk liburu bateko ertz batetik hartutakoak. Batzuk umerotsuak, besteak emozionalagoak, aldarrikatzaileak ere bai...”.

Aipagarria da, euskaraz aparte, hainbat hizkuntza erabiliko dituztela, herriko naziotasunak kontuan hartuta: berebera, arabea, errumaniera, ingelesa, frantsesa eta gaztelania.



ako argazkian. 31 urteren ostean publikoki agertu zen. Joxe Goitia

Itzuli ezinak deitzen den zer bat ari naiz idazten, 1995etik aurrera egindako poemak biltzen. Testuok idatzi baino gehiago borratu egin behar izaten ditudanez gero, liburua borratzen ari naizela esan beharko nuke [barrez].

Zer liburu gomendatuko zenioke iurretari bati?

Iurretako euskarari buruzko liburu eder bat dago, Alberto Erraztiren *Iurreta elizateko euskara eta toponimia*. Orain, hilabete barru, Julen Kaltzadaren memoriak argitaratuko direla uste dut, *Umezurtzen aberria*, hori ere oso irakurgarria izango dela uste dut.

Eta zeintzuk literatura unibertsalekoak?

Liburu bi aipatuko ditut. Gaztelaniaz, Ion Arretxe hil berri denaren *Inchaurrondo, la sombra del nogal*, torturari buruz irakurri dudana testigantzarik hobereena. Eta, ingelesez, Ambroise Bierceren *Deabruaren hiztegia*, Xabier Olarrak egindako bertsoian irakurri daitekeena euskaraz.

ESKERRIK ASKO, JOSEBA

Iurretak Sarrionandiari esker oneko jardunaldiak

• **Instalazio poetikoa**
Iurretako 20 lekutan Sarrionandiaren esaldi eta poema zatiak idatziko dira

• **Urriak 24**
Helduen irakurketa kluba. ‘Hilda dago poesia?’

• **Urriak 25**
Irakurketa publikoa Askondon
10:00etan Maiztegioko ikasleak
11:30etan Juan Orobiogoiatiako ikasleak

• **Urriak 26**
18:30etan Literatur berbaldia Ibarretxen: ‘Sarrionandiaren ondarea. Aizpea Azkorbebeitia eta Jose Julian Bakedano. Kristina Mardarasen partaidetza.
19:00etan errezitaldia. Isaac Xubin eta gonbidatu berezia.

• **Urriak 27**
Haurrentzako ipuin-kontaketa. Dejabu Panpin Laborategia.
17:00etan 6-7 urtekoak.
18:00etan 8-9 urtekoak.
19:00etan antzerkia Ibarretxen: ‘Izarrak marrazten’. KARRIKA.

• **Urriak 28**
11:00etan ibilaldi literarioa: ‘Josebaren lekuak’ (Josebaren lagunak).
18:30etan Askondon **EKITALDI NAGUSIA**
Iurretako Udalak herriko elkarteekin batera antolatutakoa, Sarrionandiaren lanari aitortza egiteko. Jarraian, ‘Joseba Sarrionandia, Hemen eta Han’ dokumentalaren estreinaldia.

“GLAMOUR HANDIKO
URTEURRENA”

6.400 €*

-tik aurrera
Etxetresna elektrikoak barne

URRIAREAREN
28ra arte



SCHMIDT ABADIÑO

Murcia auzoa, 2/g - 178 lokala
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO

Tel.: 946 526 195

info@schmidt-abadiano.com

www.schmidt-cocinas.es

SCHMIDT
Cocinas y Muebles de Hogar

Herria erdibitzen duen errepidea berrantolatuko dute

Epeak eta diru kontuak zehaztuko dituen hitzarmena aurten sinatu gura dute Aldundiagaz

IURRETA Aitziber Basauri
N-634 errepideak Iurretan duen zatiak herria erdibitzen du aspaldidanik. Udalararen urteetako eskaria da horri irtenbidea ematea eta, azken urte honetan, errepidea berrantolatzekeo egitasmoa lantzen aritu dira Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean. Errepidearen tarte hori zeharbide bihurtuta, bi eremuak batuago egotea da helburua. Horretarako, trafikoa motelduko dute.

Goiuriara joateko biribilgunetik hasi eta autobiderra sartzeko bidegurutzerainoko tarte horretan gauzatu dituzte lanak. Bi biribilgune egingo

dituzte: bata Durangorako bidegurutzearen parean, eta bestea Askondo kalearen parean. Horregaz batera, semaforoak izango dituzten hainbat zebrabide jarriko dituzte, eta bidegorri bat ere bai. Halaxe aurreratu du Iñaki Totorikaguena alkateak.

1,5 milioi euro

Errepidearen tarte hori berrantolatzekeo, 1,5 milioi euro inbertituko dira. Hori azaldu du Aldundiak, Bidesarea 2015-2019 planaren barruan herrialdeko errepideetan egingo dituzten obren berri ematean. Iurretak ere egin beharko dio aurre inbertsio horri, zati batean. Urtea



Herrigunea eta plazaren ingurua batuago egotea du helburu proiektuak

amaitu aurretik obrak gauzatzeko diru kontuak eta epeak zehaztuko dituen hitzarmena sinatu gura du udalak Aldundiagaz, Totorikaguena azaldu duenez.

Plaza inguruan eliza, udaletxea eta etxe blokeak ez ezik eskolak eta pilotalekua ere badau-

de, egunerokoan jende askoren joan-etorria eskatzen dutenak. Errepidearen zati hori hiriarren egiturari sartu gura dute, alkaterearen berbetan, "horretarako, trafikoa lasaituz". Egitasmoak Iurretaren etorkizunerako duen garrantzia gaineratu du.

Zebra-bideak segurtasunez igarotzeko tailerra

ATXONDO M.Z.

64 urtetik gorako herritarrentzat zebra-bideak segurtasunez igarotzeko ikastaroa antolatu dute urriaren 21erako, Atxondon.

Hilaren 21ean, Atxondoko Herri Eskolan eskainiko dute zebra-bideei buruzko ikastaroa

Atxondoko Herri Eskolan izango da tailerra, 17:30ean, eta, bertan, zebra-bidean norberak hartutako arriskuez ohartaraziko diete oinezkoak. Bakoitza bere segurtasunaren erantzulea dela ere erakutsiko dutela jakitera eman dute tailerraren antolatzaileek.

Margo tailerragaz gazteen sormena sustatu gura dute domekan

OTXANDIO J.D.

Otxandioko margo lehiaketak 27. aldia egingo du urriaren 22an. Ekimen horren harira, gaztetxoei bideratutako beste bat ere antolatuko dute: margo tailerra. Gaztetxoaren sormena sustatzea da helburua. Otxandioko udaltxeko kontseilu azpian batuko dira, 10:00etatik 14:00etara, adin tarteetan banatuta. Ondoren, lehiaketa batean aurkeztu ahalko dituzte euren lanak.

Margo lehiaketa nagusiak ordutegi berdina izango du. Egunean bertan egingo dute sari banaketa, 18:30ean, Bola-leku aretoan. Irabazleak 500 euroko saria irabaziko du. Bigarrenak 350 euro jasoko ditu, eta hirugarrenak, 200 euro.

“Durangoko bihotzean, etorri zen bakoitzaren bihotz zati bat dago”

Estatuko etorkinen bizipenak jasotzea proposatuko du EH Bilduk bilkuran



Ezkerretik hasita, Peñafiel, Bravo, Donaire eta Bueno.

DURANGO Markel Onaindia
XX. mende erdialdeko migrazioa beka baten bidez ikertzea proposatuko du EH Bilduk datorren martitzeneko osoko bil-

kuran, eta horren beharrezana berretsi zuten mozioaren aurkezpenean Juan Antonio Buenok, Iraide Donairek eta Rafa Peñafielek, Espainiar Estatuko

herrialdeetatik etorritako emigratzaile batzuen ondorengo direnek.

Andaluziatik etorri ziren Buenoren aita eta ama, Anda-

luziatik eta Gaztela eta Leondik Donairerenak, eta Gaztela-Mantxatik Peñafielena —berak urte bi zituen—. “Migrazioaren garrantzirik urrun, gizartea gutxi arduratu dela uste dut”, azaldu du Buenok. “Durangoko bihotzean, hona etorri ziren eta etorriko diren pertsona bakoitzaren bihotz zati bat dago. Horregatik uste dut ikerketa hau beharrezkoa dela”, esan du.

1950ean 9.000 biztanle zituen Durangok, eta 30 urte geroago, 27.000tik gora. Migrazio-aldi indartsua izan zen, industrializazioak eragindakoa batez ere. Herritar horien bizipenak jaso behar direla uste du EH Bilduk. “Gaur egungo Durango, bere izaera, proiektu konpartitu bat da”, esan zuen Aritz Bravok. Horrez gainera, diskriminazioak amaitzeko pauso bat ere izan gura du ekimenak.

EH Bilduren iritziz, beka aurrera egingo badu, etorkinak, auzo elkarteak eta zentro kulturalak izan behar dira protagonistak.

MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Eitua Industr., 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Tel.: 946 811 737
Eraikuntzako materiala
Zeramika eta gresa

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Txosnaguneko paella lehiaketan 800 bat lagun batu ziren.



San Fausto eguna eguzkitsua izan zen. Irudian, Kriskitineoak, artopilen banaketa ostean.

Lehen asteburu udatiarraren ostean, mozorroa jantzteko eguna

Kuadrillek kolorez beteko dute Durango; 18:30ean taldekako desfilea egongo da

DURANGO Markel Onaindia Urriaren 11z geroztik jaietan murgilduta dago Durango, eta oraindik ere geratzen zaio zer gozatu. Lehen asteburua luzea eta udatiarra izan zen; eguraldi bikaina lagun, jendetza batu zen egunez zein gauez. Eraso sexistak izan ziren jai-giroa ilundu zuten bakarrak. Hemen da bigarren asteburua, eta bihar jaietako egun handi bat ospatuko da, Mozorro Eguna. Kolorez beteko

dute herria kuadrillek, mozorroak jantzita.

13:00etan haurren mozorro desfilea egongo da, eta amaie-

13:00etan haurren mozorro desfilea egongo da, eta amaieran sari banaketa egingo dute

ran sari banaketa egingo dute Andra Marian. 18:30ean etorriko da bigarren desfilea, taldekakoa; Madalenatik irten eta Andra Mariraino joango dira. Hemen ere sariak eskainiko dituzte.

22 lapurreta

Bestalde, Udaltzaingoak lehen asteburuko balantzea egin du, eta 22 lapurreta egon dira, horietako bi indarkeria erabilita.

Jaia ordu laurdenez eten zen eraso sexisten aurka

Eraso sexisten aurkako aldarria presente egon zen jaien hasieran, baina jaiak hasi eta ordu gutxitara heldu ziren lehen albiste txarrak: emakume biri eraso egin zioten. Urriaren 12an izan zen lehena, eta 13an bigarrena.

Hilaren 12an, emakume batek bere bikotekidearengandik eraso jasan zuen. Gainera, ustezko egilea atxilotuta zegoela ere jakinarazi zuten. Erasoari "gaitzetsi" eta emakumeari

"babesa" eskaini dio udalak. Biharamunean, elkarretartzean batu ziren hainbat lagun Plataforma Feministak deituta, eta gauez manifestazioa egin zuten.

Hilaren 13ko erasoak kalean gertatu zen, eta biktimak ez zuten salaketarik ipini.

Herritarren Ituneko konpromisoari jarraituta, 13 iluntzean ordu laurdenez eten zuten jarduna txosnek eta tabernek, elkarretartatze orduan.

UDAKO 3. ARGAZKI LEHIAKETAKo irabazleak ZORIONAK!

ESKUALDEKO argazkirik onena

Boto bidezko sariduna

Nerea Ayartzaguena



Durangaldetik KANPOKO argazkirik onena

Boto bidezko sariduna

Irati Uriarte



Epaimahaiaren saria

Iratxe Bediaga



Epaimahaiaren saria

Gaizka Untzueta



Hurrengo urteetan jaitsi egin daiteke jaiotza-tasa eta handitu zahartze maila

Mañariko Udalak agindutako ikerketa soziodemografikoak azaleratu duen datuetako bat da

MAÑARIA Joseba Derteano
Mañariak jaiotza-tasa handia izan du azken hamarkadan, 30 eta 44 urte arteko herritar asko daudelako (128), baina datorren hamarkadan joera hori irauli egin daiteke, adin tarte horretara helduko direnen kopurua dezente txikiagoa delako: 60.

Mañariko Udalak agindutako ikerketa soziodemografikoak azaleratu duen datuetako bat da. 2027ra bitarteko proiektio segururik ezin daiteke egin, etorkizuneko migrazio mugimenduak ere aintzat hartu behar direlako. Ildo horretatik, nabarmentzekoa da udalerrikanpoko biztanleria erakartzeko gaitasuna izan duela Mañariak XXI. mendean.

30 eta 44 urteko 128 herritarrek biztanleria osoaren %24,7 dira. Portzentaia hori "Hego Euskal Herriko udalerririk askorena baino garrantzitsuagoa da", azterketak jasotzen duenez. Horren ondorio da azken



Azken urteetan jaiotza kopuru handia egon da Mañarian, baina datorren hamarkadan kontrako joera nagusitu daiteke.

urteetako "jaiotza kopuru handia"; 14 urtera arteko 84 ume daude Mañarian.

Baina adin tarte bi horien artean hutsunea nabari da. 15 eta 29 urte arteko 60 herritar daude, 80 eta 90eko hamarkadetakoa jaiotza-tasa baxuaren isla. Horregatik egon daite-

ke jaiotza-tasa baxua datozen urteetan.

Mañariko biztanleria adinaren arabera aztertuz gero, berau etorkizun hurbilean "nabarmen" zahartuko dela jasotzen du azterketak. 2027. urtean zahartze tasa gaur egungoa baino 6 puntu handiagoa izan

daiteke. Izan ere, 45-65 urte artekoak adin tarterik handieneko taldea dira: 144.

Bizikidetzaren unitateei dagokienez, pertsona bakarrek nagusitzen dira (%32). Fenomeno hau landa-eremuan are nabarmenagoa da, herrigunean baino ia hiru puntu handiagoa.

BIZTANLERIA ADIN TARTEKA

0-14 URTE ARTEAN

- Landa-eremua: 24
- Herrigunea: 60
- Guztira: 84

15-29 URTE

- Landa-eremua: 19
- Herrigunea: 41
- Guztira: 60

30-44 URTE

- Landa-eremua: 27
- Herrigunea: 101
- Guztira: 128

45-64 URTE

- Landa-eremua: 44
- Herrigunea: 100
- Guztira: 144

<65 URTE

- Landa-eremua: 47
- Herrigunea: 55
- Guztira: 102

BIZIKIDETZA UNITATEAK

Kide batekoak:

- Landa-eremua: 21
- Herrigunea: 39

Bi kidekoak:

- Landa-eremua: 9
- Herrigunea: 20

Hiru kidekoak:

- Landa-eremua: 12
- Herrigunea: 34

Lau kidekoak:

- Landa-eremua: 10
- Herrigunea: 16

Bost kidekoak:

- Landa-eremua: 5
- Herrigunea: 11

OHZ zerga "itogarria" delako, kexu EH Bildu

Abadiñokoa eskualdeko OHZ zergarik altuena dela kritikatu, prentsa oharra zabaldu dute

ABADIÑO Itsaso Esteban
Durangaldeko Ondasun Higiezin Zergarik altuena Abadiñokoa dela kritikatu, oharra zabaldu du EH Bilduk, asteon. "Itogarria" deritzote zergari, eta uste dute "ez dela bidezkoa" abadiñarrek halako karga jasatea. EH Bilduk oharrean dioenez, "Udalak OHZren bidez jasoko dituen diru-sarrerak orotara %35,5 igotzea erabaki dute Abadiñoko Independenteei

eta EAJk". Koalizioak gogora ekarri du, bestalde, 2016an katastroaren eguneraketa egiten ari zirenean, OHZ ez zuela inolaz ere udaleko diru-sarrerak handitzeko erabiliko idatzi zuela Jose Luis Navarro alkateak El Correon argitaratutako iritzi artikulu batean.

Gaia berraztertzea eskatu duela azaldu du EH Bilduk, baina, momentuz, AI eta EAJ ez direla horretarako prest agertu.

Trumoitte informazioa eskainiko du

GARAI Markel Onaindia
Herriko jaiak eta beste makina bat ekintza prestatzen dituen Trumoitte kultur elkarteak batzarrerako deia egin du, hilaren 27rako; 19:00etan hasiko da, kultur etxean. Herritar guztiei egin diete bertan parte hartzeko gonbitea, izan ere, batzarra informazioa eskaintzeko helburuz antolatuta dute Trumoitteko kideek.

Besteak beste, elkartearen beharrezan eskaintuko dituzte, eta ekimenen balorazio ekonomikoa ere bai.

Galesko sei artista arituko dira Kultur Etxeko oholtzan

BERRIZ Maialen Zuazubiskar
Berrizko sortzaileak herriko beste artista batzuekin harremanetan jartzeko asmoz, OKA kultur elkarteak "Zaindu maite duzun hori" lehen sormen jaialdia antolatu zuen duela lau hilabete inguru.

Orain, berriz, Berrizko kultur elkarteak Galesko sei sortzaile gazte gonbidatu ditu Berrizko Kultur Etxeko oholtzan aritzeko. Alaw Fflur Jones 16 urteko abeslaria, Gwilym Bowen Rhys musikaria, Lestyn Tyne biolinista, Luned Rhys Parri artista, Nicolas Davalan

baxu-jotzailea eta Osian Morris abeslaria eta gitarrista izango dira urriaren 26an Berrizko Kultur Etxean elkarregaz arituko direnak.

Zenbait diziplina artistikotan diharduten sei sortzaileek, Berrizen egingo den jaialdian, elkarregaz aritzeko aprobetxatuko dute.

Galesko kulturaz gozatzeko aukera egongo den Kultur Etxeko ekitaldi hori arratsaldeko zazpitan hasiko da, eta OKA kultur elkarteak antolatuta du, Wales Arts International erakundearen laguntzagaz.

ALBERDI

HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Baserrietatik ibilaldia egingo dute ondare jardunaldietan

IZURTZA Joseba Derteano Gerediaga elkarteak antolatutako ondare jardunaldien barruan, Izurtzan zenbait garaitako baserrien artetik oinezko ibilbide gidatua egingo dute domekan. Baserrien eta inguruetan dituen paisaiaren bila-kaera behatuko dute. Ibilaldia Etxaburudorren amaituko da. Toki horretan soinu-paisaiaren inguruko lanketa bat egingo dute gaztetxoekin. Bi ibilaldi egongo dira: 10:30ean euskarazkoa eta 12:00etan gaztelaniazkoa.

Iurretako hilerria

Iurretan hilerria bisitatuko dute zapatuan ondare jardunaldien barruan. 2014an berri-ritu zuten hilerria eta diseinu berezia du, inguruko paisaiagaz integratzen dena. Eredu horren gaineko azalpenak emango dituzte, 16:30ean euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz. Ekimen bietarako izen-ematea aurrez egin beharra dago.

‘Elorrio zabaltzen’, herritarrekin elkarlana bultzatzeko aplikazioa

‘Kalezaindu’ tresnarekin herritarrek matxuren berri eman ahal izango dute



Ezkerretik hasita, Maite De Arana, Xabier Dominguez, Idoia Buruaga, Alaitz Etxeandia eta Joseba Ganboa.

ELORRIO Maialen Zuazubiskar Martitzenetik erabilgarri dago Elorrioko Udalen aplikazio berria. Idoia Buruaga alkateak martitzeneko tailerlean jakitera eman zuenez, tresna berri hau elorriarrei udala bera hurbiltzeko tresna bat da. “Amestutako Elorrio eraikitze horretan jarraitzen dugu, eta aplikazioa beste tresna bat da horretarako”, adierazi du Buruagak.

‘Elorrio zabaltzen’ aplikazioaren bitartez, herritarrek

udaleko oharrak jasotzeko aukera izango dute, eta webgunean idatzitako albisteak zuzenean mugikorrean jasoko dituzte.

Alaitz Etxeandia Bizkaitikeko kideak —aplikazioaren sortzaileetarik batek— adierazi zuenez, erreminta berri hau gardentasunerako eta partehartzerako tresna bikaina da.

Bestalde, aplikazio berri honi esker, Kalezaindu erreminta ere eskuragai izango dute herri-

tarrek. “Herritarrekin batera elkarlana bultzatzeko tresna da Kalezaindu. Gainera, betiko lez, gardentasunaren bitartez parte-hartzea bultzatzea izango dugu helburu tresna berri honegatzat”, adierazi zuen Xabier Dominguez zinegotziak.

Kalezainduren bidez, udalerrian matxura edo kalteren bat antzeman duten pertsonen zuzenean bidali ahaliko dute oharra udalera, telefonoko aplikazioa erabilita.

1931n Gernikan sinatutako adierazpena berretsiko dute

ELORRIO M. Zuazubiskar ‘Gaur, atzo legez, erabakitzea helburu’ dinamikaren baitan, 1931ko apirilaren 16an Bizkaiko udal batzarra berretartzeko eta herrietan zegoen borondate politiko berriari bultzada emateko sinatu zuten adierazpena zapatu arratsaldean berretsiko duela jakitera eman du Elorrioko Udalak.

“Duela 86 urte bezala, Elorriok erabakitzea du helburu eta, orduan bezala ere, erabaki egingo dugu”, adierazi dute Elorrioko Udaleko eta Gure Esku Dagoko kideek prentsa ohar bidez.

Batzarren ostean, bilkurako gaiagaz lotuta eta Gure Esku Dago dinamikak antolatuta, Arriolan ‘Lahar eta Larrosa’ antzezlanaren egongo dela jakinarazi dute.

Horrez gain, udaleko eta Gure Esku Dago dinamikako kideek herritarrei dei egin diete, 18:00etako bilkurara eta 19:00etako antzezlanera joan daitezten.

MALLABIKO URRIKO JAIK

· 2017.10.28 ·
22:30ean

HERRIKO PARKEAN
sarrera doan

ANTOLATZAILEAK
Mallabiko Udala eta Jai Batzordea

HESIAN

SKAKEITAN

TRIKIZIO

Egoitzetako grebalariek Zornotzan hasiko dute gaurko etapa

ZORNOTZA J.D.

Bizkaiko zaharren egoitzetako langileek 350 egun daramatzate greban, euren lan baldintzetan hobekuntzak eskatzeko. Euren egoera eta aldarrikapenak kalera atera dituzte egunotan, Bizkaia zeharkatzen dabilen martxa baten bidez. Bost etapatan banatuta, mar-

Gaurko etapa Durangoko udaletxe parean amaituko da. Martxagaz bat egitera deitu dute antolatzaileek

titzenean hasitako martxa bihar amaituko da, Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitzaren parean. Durangaldetik ere igaro dira. Gaur Zornotzan hasiko dute laugarren etapa, eta Durangoko udaletxe parean amaituko da.

Ekimena aurkezteko eskaini zuten prentsaurrekoan herritarrei dei egin zieten, martxa herrietaik igarotzen denean eurengana batzeko.

ZORNOTZA J. Derteano

Musika kalera aterako duen ekimena prestatu dute, urriaren 28rako, Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak. Kalea bera eszenatokitza hartuta, muntaia berezirik gabe, Zornotzako sei taldek kontzertuak eskainiko dituzte hiru gunetan. Onenentzat sariak egongo dira.

Haizetaran ekimenaren eszentzia hartu dute oinarritzat: musika kalean eta eszenatokitik gabe, espaloian bertan. Baina, txarangen arteko lehiaketan ez bezala, musika taldeak ez dira kalean gora eta behera ibiliko. Zuzenekoak eskaintzeko atondutako hiru gunetan arituko dira: Harrison plazan, Tomasa tabernaren kalezuloan eta Leku Berri tabernaren ondoko bidegurutze inguruan.

Zornotzako sei taldek parte hartuko dute ekimenean: Enetaran, Steepers, Primeros Auxilios, Zerua Drive, Blanco y en Botella eta Calling de Riot taldeek. Denak Zelaieta zentroan entseatzeko duten taldeak dira. "Lutaber elkartetik ideia irten, herriko taldeei gustatu, eta denon artean borobildu genuen ekimena", azaldu du Lutaber elkarteko Julen Bazek.

Talde bakoitzak 45 bat minutuko bi kontzertu eskainiko ditu, bakoitza leku batean. Txandaka arituko dira. Urriaren

Kalea eszenatoki bihurtuko dute herriko musika taldeek 28an

Sei talde zuzenean arituko dira Luis Urrengoetxea kaleko hiru gunetan



Eszenatoki barik, espaloian gainean eta herritarrek aurrez aurre dituztela eskainiko dituzte zuzenekoak.

28an, 19:30ean, hasiko dira lehenengo emanaldiak, eta 22:30ean azkenak.

Sariak onenentzat

Bi sari egongo dira: adituen epaimahaiarena eta herrita-

rena. Adituena irabazten duenak datorren urteko martxoan Ametx erakundeak abiatuko duen maketa lehiaketan zuzenean parte hartzeko eskubidea irabaziko du. Herritarren botorik gehien jasotzen dituen

taldeak, berriz, 400 euro jasoko ditu. Bigarrenentzat ere badago saria: 200 euro. Luis Urrengoetxea kaleko tabernan bozkatzeko guneak egongo dira, herritarrek euren iritzia emateko aukera izan dezaten.

Bide berria Ansoagagoikoa eta Ansoagabehekoa auzoak lotzeko

Oinezkoentzako pasabide berriagaz handitu egin dute segurtasuna



Ansoagagoikoa eta Ansoagabehekoa lotzen dituen bide berria.

MALLABIA J.D.

Mallabiko Ansoagagoikoa eta Ansoagabehekoa auzoak bide berri eta seguruago batekin lotzen ditu. Auzo bien ondorengo pasabide berria egin du udalak, batek bestera joateko bidea errazteko. Orain arte errepideko espaloitik egin zitezkeen auzo

bi horien arteko joan-etorriak, edo, bestela, eskailera batzuk igo behar ziren. Errepidean malda handia dago eta, batzuetan, autoak komeni baino abiadura handiagoan dabilta, ondorengo pasatzen diren oinezkoen segurtasuna arriskuan jarritz, udal arduradunen esanetan.

Horregatik, auzo biak lotzeko bide alternatibo bat egitea pentsatu zuen Mallabiko Udalak, eta joan zen aste hasieratik dago erabilgarri. 25 bat metroko bide berria bihurgune bat eginez igotzen da Ansoagagoikoa auzoraino, auzo bien arteko malda suabeagoa eginez.



Hesian taldea 2006an sortu zen Etxarri-Aranatzen (Nafarroa).

Hesian, Skakeitan eta Trikizio taldeak jaietan

Urriko Jaietan kontzertua eskainiko dute

MALLABIA J. D.

Mallabian Urriko Jaiak ospatuko dituzte urriaren 27an eta 28an. Egitarau mardularen barruan, rock kontzertuak nabarmendu daitezke. Datorren asteko zapatu gauean Hesian, Skakeitan eta Trikizio taldeek zuzenekoak eskainiko dute herriko parkean.

Aurretik, egunean zehar ere hainbat ekintza izango dira. Ardo feriaren bigarren aldia da

horietako bat. Ardosaltsanek antolatuta, askotariko ardoak probatzeko aukera egongo da 12:00etatik 17:00etara, bost euroko sarreraren truke.

Bariku arratsaldean, 18:30ean, jaurtiko dute jaietako hasiera emango dien txupinazoa. 19:00etan elizpeko pilota txapelketako finala hasiko dute eta, 20:00etan, labeldun oilasko pintxoak (1,5 euro) jateko aukera egongo da.

16 urtetik gorakoentzako bertso eskola ipini gura dute martxan

Bertsolaritzari buruzko hiru hilabeteko ikastaroa antolatu du udalak



Durangaldeko bertso eskolen ikasturte hasierako jaia Zaldibarren ospatuko dute, urriaren 27an.

ZALDIBAR I. E.

“Ahozkotasuna landu eta hitzagaz jolasteko” gogotsu dauden 16 urtetik gorakoei zuzenduta, hiru hilabeteko bertsolaritza ikastaroa antolatu du Zaldibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak. Azaroan hasiko da ikastaroa. Bertsolaritza “giro onean eta modu ludikoan” landuko dute ikastaroan parte hartzen dutenek, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen eskutik. Urriaren 30era arte, eguen@zaldibar.eus helbidean edo 946827016 telefono zenbakian eman daiteke izena.

Hiru hilabetean zehar 14 saio izango dituen ikastaro labur hori epe luzera Zaldibarko bertso eskola sortzeko lehenengo pausoa izatea gura du Zaldibarko Udalak. Horregatik, bertsozale taldea egonkortuko balitz, hiru hilabeteko ikastaroa urte osora zabaltzeko aukera egongo litzatekeela aurreratu dute antolatzaileek. Izan ere, bertsolaritzaren transmisioak eta sustapenak euskararen erabilera, bizitasuna eta kalitatea handitzeko ekarpen esanguratsua egin dezaketela uste dute.

Bertso eskolen jaia

Urriaren 27an, Durangaldeko bertso eskolen ikasturte hasierako jaia Zaldibarren egingo dute. Ikasturtea modu ofizialean hasteko eta Zaldibarko bertso eskolaren sorreran laguntzeko antolatu dute jaia bertan. Berriz, Durango, Zornotza eta Otxandioko bertso eskoletako 8 taldetako kideak gonbidatu dituzte jai horretara. Meriendan elkartuko dira gazteak lehenengo, eta herrian zehar bertso poteoan ibiliko dira bertsolariak eta gai-jartzaileak, ondoren.

Katalunia, berriro ere kaleko eztabaidan

Sanchez eta Cuixarten kartzelaratzeari salatu dute

DURANGALDEA M. O.

Kataluniako prozesu subiranistak egun erabakigarriak bizi izan ditu azken asteetan, eta Durangaldean hainbat aldiz atera dira kalera babesa erakustera. Astelehenean ANC eta Omnium eragileetako presidentek —Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart— kartzelara bidali zituen epaileak, eta horren

aurrean protesta egiteko, Gure Esku Dagok mobilizazioetara deitu zuen martitzenean herri-rik herri.

Horrez gainera, Durango-ko Udalak kartzelaratzeari horren aurkako udal adierazpena onartu du, EAJ, EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen botokin. Atxilotuei babesa erakutsi, eta haiek askatzeko exijitu du.



Durangon jendetza elkartu zen mobilizazioan.



Berrizen kartelak eta banderak eskutan egin zuten protesta.

DURANGALDEA ASTEON

Nafarroa zentroan lehenengo faseko lanak amaitu dituzte

ZORNOTZA > Nafarroa zentro osoa eraberritzen hasi dira, faseka. Lehenengo faseko lanak amaitu dituzte, bigarren solairuan, 630 metro karratutan. Eraberritze integrala egin dute eta espazioak berantolatu dituzte 450.000 euroko inbertsioagaz. Zerbitzu berrien artean, autonomia maila altuko pertsoneri zuzendutakoa hartuko du martxan jarri denetik aurrera.

Familian euskaraz jolasteko ekimena abiatu dute Berrizen

BERRIZ > Berrizko Udalak, Urtxintxa eskolagaz elkarlanean, gurasoek beraien haurrekin euskaraz jolastea helburu duen ‘euskaraz jolas eta solas’ ekimena abiatu du. Gurasoen eta seme-alaben hartuemanetan euskara sustatzea du helburu. Hurrengo hitzorduak urriaren 26an eta azaroaren 2an izando direla adierazi dute, 16:15etik 17:15era, eskola ondoko parkean.

Langile baten heriotza salatzen elkartuko dira

ATXONDO > Atxondoko Comercial Arrate enpresako garraiolari batek lan istripua izan zuen Soraluzen, urriaren 5ean, eta handik astebetara hil egin zen. Horren aurrean, euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak) elkarretaratzea egingo du gaur, 12:00etan, Atxondoko Artia industrialdean, Comercial Arrate enpresa parean.

IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Anboto
Komunikabideak
[@anboto](https://www.facebook.com/anboto)
[@anbotokomunikabideak](https://www.instagram.com/anbotokomunikabideak)

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian

> Berbaz

Tinus Wijnakker Brouwers | Hezitzailea eta Alavida proiektuaren sortzaileetarikoa bat | Holanda, 1952

“Eduki akademikoez gaindi, zerbait ikasi eta ulertzeko esperimintatu egin behar da”

Bidelagun, hezitzaile eta gurasoei zuzenduta Umerri eskolak antolatutako ‘Umeak akonpainatzen’ ikastaroa gidatzen du

> BERBAZ Aitziber Basauri

Umeek erreminta lagungarri eta trebezia gehiago izan ditzaten, bizipen-ikastaroa ematera etortzen da Durangaldera Tinus Wijnakker. ‘Umeak akonpainatzen’ ikastaroa irailan hasi zen eta 26 lagunek parte hartzen dute. Bizi-esperientzian oinarritutako ikasketak bultzatzen dituen Alavida proiektuaren sortzaileetarikoa bat da holandarra, baina, 30 urtetik gora dira Madrilen bizi dela. Hurrengo saioa urriaren 27an da.

Hezitzaileak baino, laguntzaileak behar dituzte umeek?

Aurretiaz umeentzat ona zer den badakien heldu bat lez irudikatzen dugu hezitzailea. Baina, lagundu gura badut, zertan lagundu jakin behar dut eta umeak —berdin helduekin— gura eta behar duenari jarri behar diot arreta. Hura kontuan hartu. Hala ere, laguntzeak ez du esan gura, momenturen batean, ume horren erreferente edo eredu izango ez naizenik, umearen gidari izango ez naizenik. Hala ere, umea jarriko dut lehen lerroan, horri egongo naiz adi, ditudan espektatibei jarraitu beharrean.

Umearen ikasketa prozesua barrenetik hasten dela diozu.

Duen adina duela, ume batek badu zeresana erabaki bat hartzerakoan, eta zerbait egin gura ez badu, ez dugu zertan behartu. Badira gauza batzuk ikasi egin gura dituenak, inguruarekiko etengabeko harremanetan erabilgarri zaizkionak. Adibidez, logikoa da bere herrialdeko hizkuntza ikasi gura izatea, ez dugu derrigortu beharrik erabiltzen ari den hizkuntza ikastera. Berdin beste gauza askogaz. Umearen momentua kontuan hartuz gero, egiten ari den horrekiko interesa izatea lortuko dugu. Dena delako hori ikasteak merezi duelako, motibatuta ikasiko du, arlo akademikoan, harremanak egiterakoan...

Bizi esperientzian oinarritutako ikasketa da hori?

Bai. Eduki akademikoez gaindi, zerbait ikasi eta ulertzeko espe-



“**Bere errealitateak eskaintzen dion horretatik umeak zer ikasi behar duen jakin behar dugu**”

rimentatu egin behar da. Esperientzia propioekin erlaziorik ez duen ikasketagaz emaitza bat lortuko dut, bai, baina bide bat egin gabe: irudi edo argazki bat egin gabe. Baina ez dut haren usaina ezagutzen, beldurra ematen didan ala ez ... Ez dut harreman interesgarri bat elefanteagaz, eta kontzeptu pobre bat lortuko dut. Neurona-loturetan oinarritzen da ikasketa, eta interesaren arabera lotura gehiago edo gutxiago egingo ditut. Motibazioa baino gehiago da. Burmuina lantzeko eragaz du zerikusia, bizi-esperientziako hainbat arlotan askotariko loturak egiteko oinarritzko ezagutzagaz.

Sentimendu eta emozioekin lotura zuzena du horrek?

Gutziz. Motibazioagaz, interesagaz, ikusminagaz... Gauzak bizitzea edo sentimendu eta emozioak adieraztea uzten ez den espazio batean, ez da neurona-loturarik emango —ematen bada, helduek antolatuta—. Baina sentimenduak kontuan hartuz gero, umea erabakiak hartzeko gai dela onartu behar dut. Horrela, umearen autoestima askoz altuagoa izango da eta heldu denean bizitza propioa izateko gai sentituko da, nola bizi esango dion inoren zain egon gabe.

Horretarako, umeak zein baliabide behar ditu?

Jatea, lo egitea, babestuta sentitzea... behar dute umeek; eta baldintzarik gabeko maitasuna. Bestela, maitatua izateko behar hori asetzeko egingo du bata edo bestea. Xantaia emozional horren menpe ikasiko dute. Segurtasuna ere behar dute, beti gurasoak hor izan gabe. Erabakitze-ko aukera ematen die, gurasoek esango dutenari begiratu gabe.

Umeek mugak behar dituzte?

Bai. Askatasuna eta autonomia arduragaz daude lotuta, eta ardurak esan gura du albokoa aintzat hartzea, gu geu kontuan hartzen gaituzten eran: akordioetara heldu behar dugu, arazoak konpondu, harremanak egiten ikasi... Kontua ez da gura dena egitea, inoren kontra. Horretarako, ahalegintxo egingo da lorpena handiagoa dela ikastea garrantzitsua da, bide errezena hartu beharrean: jostailu bat lortzeko ez dago jo beharrik, biderik errezena den arren. Badago premia hori asetzeko beste erarik. Egoera bakoitzaren aurrean zer egin daitekeen ikaste-ko, umearen alboan jarri behar dugu, eta beste bide bat aurkitu daitekeela azaldu. Mugak, berriz, arriskuak saihesteko era dira, segurtasuna eman behar dute: inork joko ez gaituela, kotoxak harrapatuko ez gaituela...

Umeengan espektatiba asko ditugu jarrita?

Aldakorra izan litekeen etorkizunari aurre egiteko prest da-

goen pertsona heldua izan dadin, orain, bere errealitateak eskaintzen dion horretatik umeak zer ikasi behar duen jakin behar dugu: bai eduki akademiko berriak barneratze-ko, bai harremanak egiteko, hitz egiteko edo defendatzen ikaste-ko.... Horri egon behar dugu adi. Horrela, berezko motibazioa izango du edozer ikaste-ko. Berak aukeratuakoa ikasiko du, ez gurasoek edo irakasleek esandakoa.

Egungo hezkuntza sistemak ez du hau guztia bermatzen?

Eskola gehienetan guztiz eragiten duen sistema formal bat dago. Beti egon dira saiakerak gauzak aldatzeko eta eskola askotan ari dira gauzak aldatzen. Irakasleek asko eragin dezakete horretan. Baina, Euskal Herriaren oposizio bidez osatzen da irakasleagoa eta zailtasunak daude planteamendu pedagogiko partekatuan oinarrituta antolatze-ko. Politikoki zuzena den eredu sozial batera egokitzeko, sozializazio prozesu bat ere ematen da eskolan.

Jose Antonio Sistiaga artista donostiarraren margolana, 52. Durangoko Azokaren irudia

Abenduaren 6tik 10era egingo den 52. Durangoko Azokaren kartela aurkezteko agerraldia egin dute, asteon



Gerediaga Elkarteko eta Azokako guneetako kideak eta azoka babesten duten erakunde publikoetako ordezkariak batu ziren prentsaurrekoan. Txelu Angoitia

> AZOKA Itsaso Esteban Abenduaren 6tik 10era egingo den 52. Durangoko Azoka hasteko 52 egun falta ziren egunean, martitzenean, Kurutzasantu Museoan aurkeztu zuten aurtengo edizioa iragarriko duen kartela. Gerediaga Elkartearen enkarguz, Jose Antonio Sistiaga margolariak (Donostia, 1932)

osatu du aurtengo azoka iragarriko duen kartela. Pelikula esperimental bateko diapositiaba bat oinarri hartuz, eskuz margoturiko artelana da 52. Durangoko Azokaren irudia.

Parisen egin zituen Sistiagak margogintzako ikasketak, eta Oteiza, Zumeta eta Chillidagaz batera Gaur artisten elkarteko

kidea izan zen. Martitzenean, Txelu Angoitia Gerediagako

Pelikula esperimental bateko diapositiaba bat oinarri hartuz eskuz margoturiko artelana da

kidea eta argazkilaria lagun, 1968an lehenengoz erabili zuen zeluloidean margotzeko teknikari buruz mintzatu zen Sistiaga azokako kartelaren aurkezpen ekitaldian.

52. Durangoko Azokaren kartela erakutsi aurretik, abenduaren 6tik 10era arte Durango “sormenaren lurralde” bilaka-

tuko duen azokaren inguruko hainbat datu eskaini zituen Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek. Abenduko zubian Durangora etortzeko gonbidapena egin zien herritar guztiei: “Bost egun eta 50 ordu izango dituzu errutinatik atera eta sormenaren lurraldea bizitzeko”, aurreratu zuen.

Hirugarren urtez, aurten ere bost egunekoa izango da Durangoko Azoka, eta Ikasle Eguna abenduaren 7an ospatuko dute —ez orain arte bezala, azokako lehenengo egunean—. Nerea Mujika Gerediaga Elkarteko presidentek aurreratu duenez, abenduaren 7ko ikasleentzako tailerretako leku guztiak bete dira jada. Aldiz, helduei zuzenduriko arratsaldetako tailerretan izena emateko aukera badago oraindik. Durangoko Azokaren webgunean eman ahalko da izena, urriaren 31ra arte.

Gerediaga Elkarteko eta Azokako guneetako ordezkariekin batera, ekimena babesten duten erakunde publikoen ordezkariak izan ziren martitzeneko Kurutzasantuko aurkezpenean. Azokaren garrantzia azpimarratu zuten euren heraldietan Aitziber Irigoras Durangoko alkateak, Maria Jose Telleria Gipuzkoako Aldundiko Kultura zuzendariak, Ana de Castro Bizkaiko Aldundiko Euskara zuzendariak eta Jozean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak.

Aspaldiko partez, Zornotza Aretoan arituko da Mikel Urdangarin, gaur

Bere herriko antzokian joko ditu Urdangarinek ‘Margolaria’ diskoko kantak

> MUSIKA I. E. Herriko jaietan eta Zelaieta zentroan jo izan du orain ez hainbeste denbora, baina Mikel Urdangarin zornotzarrak urte asko daramatza Zornotza Aretoan oholtzara igo barik. Gaur, 20:00etan, hiru musikaririk lagunduta aurkeztuko du *Margolaria* bere azken lana.

“Kontzertu bakoitza animo pildora bat da, eta Zornotzan kantatzeko, gainera, bereziki gogotsu nago”, adierazi du musikariak. “Beste kontzertuetara ez bezala, honetara familiakoak etorriko dira, eta halako detalletan ilusio berezia egiten dute”.

Martxoan argitaratu zuen *Margolaria*, eta grabazioan ondoan izan zituen musikariek

lagunduta, lan horretako kanta guztiak jo ditu azken hileetako kontzertuetan. “Oso gustura ibili gara; uste dut jendeak ondo hartu dituela kanta berriak”, dio. Azken kontzertuak ezohikoak izan dira: duela hiru hila-

“Kontzertu bakoitza animo pildora bat da, eta Zornotzan kantatzeko bereziki gogotsu nago”

bete istripua izan zuen mendian, eta hanka bietan min hartuta, udan gurpil-aulkian eserita eskaini behar izan ditu kontzertuak. Makuluekin dabil orain.

2015ean bakarka kaleratu zuen diskoaren ostean, taldeak lagunduta dabil berriro Urdangarin. “Eszenatokira zure gitarragaz eta ahotsagaz bakarrik edo talde sendo baten laguntzagaz ateratzea oso gauza diferenteak dira: biek dute bere xarma, baina, orain, taldeagaz oso gustura nabil”, adierazi du.

Datorren hilean, hiru kontzertu eskainiko ditu Argentinan; Buenos Airesen, La Platan eta San Nicolasen joko du. San Nicolasen, hango Arte Eskolako musikariek arituko da. *Margolaria*ko kantak ikasten ari dira musikari argentinarrak saio horretarako. Argentinatik bueltan, Durangoko Plateruenean arituko da, azaroaren 25ean.



Azaroan hiru kontzertu eskainiko ditu, bakarka, Argentinan.



Eneko Sagardoy durangarrak antzezten du 'Handia' filmeko protagonistaren papera.

> ZINEMA Itsaso Esteban Gaur estreinatuko dute Hego Euskal Herriko zinema-aretoetan Aitor Arregik eta Jon Garañok zuzenduriko *Handia* filma. Donostiako Zinemaldian oso kritika onak izan ostean, eta euskal zinemaren Irizar Saria eta Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi eta gero, gaurtik aurrera publiko orokorrak ikusi ahal izango du Eneko Sagardoy aktore durangarra protagonista duen filma. Ohiko are-

Durangon, Elorrion eta Zornotzan emango dute 'Handia', asteburuan

Gaur estreinatuko dute filma Hego Euskal Herriko zinema-aretoetan

toetan emango dute. Datozen egunetan, beraz, Durangaldean ere ikusgai izango da Altzoko Handiaren istorioa. Gaur, bihar eta etzi Durangoko Zugaza Zinemaren, Elorriko Arriolan eta

Zornotza Aretoan ikusi ahaliko da *Handia*. Durangon, egunean bi emanaldi izango dira gaurtik astelehenera arte, eta bana martitzenean eta eguaztenean. Asteburuan emateko hautatu

duen filma izango da Zornotzan eta Elorrion ere.

Datorren asteburuan Berrizko Kultur Etxean izango da ikusgai: urriaren 27an (22:00etan) eta 29an (19:00etan).

'Mundu bat bertso' egitasmoa martxan

Bertsolaritza ikasgelan landuko dute 660 ikaslek

> BERTSOLARITZA I. E.

Ekimena martxan ipiniko den herrietako udalen babesagaz, *Mundu bat bertso* egitasmoa antolatu du ikasturte honetan ere Bizkaiko Bertsozale elkarteak. Egitasmo horregaz bat egin duten Zornotza, Durango, Iurreta, Abadiño, Atxondo, Zaldibar eta Otxandioko Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailletako 660 ikaslek bertsolaritza landuko dute ikasgelan.

Bertsolaritza jorratuz, ahoz-kotasunaren bidez hizkuntza, kultura, musika eta bestelako trebetasunak landuko dituzte

Mundu bat bertso proiektuan parte hartzen duten ikasleek. Astero edo hamabostero, ordu bat iraungo duten saioetan ber-

Astero edo hamabostero, bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza jasoko dute eskualdeko 660 ikaslek

tsolaritzaren oinarritzko ezagutza jasoko dute. Jolasak, entzunaldiak eta ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dituzte, besteak beste, saioetan.

Sorolla Domina eman diote AEBetan Zugazari

Hispanic Society of America erakundearen saria da

> SARIA I. E.

Miguel Zugaza durangarrak "arte eta kultura hispanikoari egindako ekarpen aparta" nabarmendu gura izan du Hispanic Society of America erakundeak, Sorolla Domina emanaz. Joan zen egunean New Yorken egin zuten ekitaldian jaso zituzten dominak Zugazak eta Jose Manuel Entrecanales eta Yolanda Santos beste bi sarituek.

1904an Archer Milton Huntington akademikoak sortu zuen Latinoamerikan kultura espainiarra zabaltzeko helburua daukan Hispanic Society of America erakundea. Espai-

nia, Portugal, Latinoamerika eta Filipinetako artea eta kultura hedatzeko helburuagaz sortu zuten erakunde hori.



MIGUEL ZUGAZA

Hamabost urtez Madrilgo Prado Museoko zuzendaria izan eta gero, abendutik Bilboko Arte Ederren Museoaan dabil lanean Miguel Zugaza durangarra.

GEURE DURANGALDEA

GARAZI MUGARZA MARKINA

Erizaina



Izurria

"Orain badakit gizonak ekin-tza handiak egin ahal dituela. Baina sentimendu handi bat izateko gai ez bada, ez zait batere axola", aitortu zion Rieuxek Tarrouri. Latzetik bezainbeste du ederretik gure lanak. Paziente batzuek beti akordatuko naiz, nik eurak baino gehiago lagundu naute askotan, eta nahi nuke irakaspen horiekin guztiekin eredu txukun bat sortu, gero nire bizimodu erosora aplikatzeko. Izan ere, maiz iruditzen zait benetan garrantzizkoak diren arazoak dituen jendea gutxiesten ari naizela eta nik ez daukat motiborik koleraz bizitzeko. Txikiak izan behar luketen kezkei hondamendi baten neurriko garrantzia ematen diet eta oso errudun sentitzen naiz horregatik.

Izurria etenik gabe hedatzen da esparru guztietara eta hiriak ixten ditu bizitzari aukerak ukatzeko. Behintzat hala iruditzen zaigu baso bete uretan itotzen garenoi, eta benetan iristen denean erortzen lehenak izaten gara. Baina zenbaitzuek diote izurriak bizitzari aukera bat ematen diola, gauzei joaten utzi behar zaiela; gainezka egin orduko uhateak irekitzea zilegi da eta urei utzi egin behar zaie euren ibaiak egiten. Batzuetan eusteak mintzen duelako uzteak baino gehiago. Eta horrek ez du esan nahi bizitzari amore ematen diozunik, ezpada benetan garrantzizkoa dena estimatzen ikasi duzula-ko zaudela hari begira.

Camusen *Izurria* nobelako beste pasarte eder batek hala dio: "Ez dit axola itxarroteak etorriko zarela baldin badakit". M-k esan zidan benetan garrantzitsuak diren horiek ia beti iristen direla bizitzan.

Los amantes del Casco Viejo
de Patxo Telleria

Urriaren 28an
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
OSPAKIZUN BEREZIAK

URRIAK 27
20:00etan
URTEURREN JAIA LUHARTZ JAIALDIA

URRIAK 29
19:00etan
DURANGO 1936 OMENALDIA

AZAROAK 3
21:30ean
PUB QUIZ TRIBILALA INGELESEZ



**Innovation
that excites**

AUKERA HONEKIN EZ DUZU MAHATSAK JAN ARTE ITXARONGO



**GAURSAN SOILIK GAMA OSORAKO
DESKONTU BEREZIAK LOR ITZAZU URTE AMAIERA BAINO LEHEN**

GAURSA

Arriandi Auzoa, 12 - 48215 Iurreta - Bizkaia - Tel. 946 205 000

Kontsumo mistoa: 3,2 - 9,5 l/100 km. CO₂ isurpenak: 85 - 172 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

“Umetan balletean hasi nintzen, baina dantza garaikidera jo dut urteekin”

Bihar Bilbon estreinatuko duten ‘Funtzak’ obrako dantzarietako bat da Elene Carreto (Durango, 1995)

> DANTZA Itsaso Esteban
Zelan batu zinen ‘Funtzak’ obra sortzeko proiektura?

Beste proiektu batean ezagutu nuen, iaz, lan honen zuzendari artistikoa, Nuria Perez. Ekainean deitu zidan proiektu honean parte hartzea proposatzeko.

BAD jaialdiaren barruan estreinatuko duzue obra, bihar.

Bai, eta oso pozik nago horregatik: antzerki eta dantza arloko jaialdi inportantea da.

Egun oso intentsuak izango zentzen azken hauek.

Entsegu asko egin dugu estreinaldira begira, bai. Estreinaldia egingo dugun Bilboko La Fundación aretoan ibili gara bederatzi egunez egoitzan.

Zelakoa da ‘Funtzak’?

Dantza eta antzerkia uztartzen ditu, eta ikuskizunerako musika propio sortu du Asier Beramendia Eraul taldeko kideak. Obran hiru dantza solo daude, eta pieza bakoitzari doinu bat ipini dio.

Zelakoa izan da koreografiak sortzeko prozesua?

Gestalt terapiako teknikak baliatuz sortu ditugu soloak, inprobi-

satuz, bakoitzaren sentsazio eta fisikaltatearen arabera sortzeko. Hasiera eta amaierako koreografiak taldekoak dira, eta tartean egiten ditugu soloak. Hiru dantzariak oso desberdinak gara, eta obrako mugimenduetan islatuta ikusten da hori.

Zer ezaugarri islatzen ditu zure koreografiak?

Ikuskizunean sua naiz ni, eta dantza egiteko nire modua oso energikoa eta indartsua da, fisikaltate handikoa.

Emakumeak zarete oholtzan agertzen zareten guztiak.

Bai, izan ere Nuria Perez zuzendariak emakumeen indarra islatu gura du obragaz.

Taldeko kiderik gazteena zara.

Beste taldekideek 30 urte inguru daukate, eta esperientzia handiagoa, baina ez zaizkit horregatik lezioak ematen ibili... Elkarrirri geure iritziak eman dizkiogu, eta oso eroso ibili gara lanean.

Estreinaldiaren ostean leku gehiagotan arituko zarete?

Gustatuko litzaiguke programatzaileei lana interesgarria iruditzea eta proposamenak jasotzea.



Hiru urtegez hasi zen Elene Carreto balleteko eskoletara joaten.



Gestalt terapiako teknikak baliatuz sortu dituzte ‘Funtzak’ obrako koreografiak.

Obra kalean egiteko moldatzeko ere prest geundeko, gainera.

Bilbon ikasten duzu dantza.

18 urtegez Madrilera joan nintzen dantza ikastera, baina Bilbon ikasketa horiek egiteko aukera sortu zenean, gurago izan nuen bueltatu. Dantzertin, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako ikasketen lehenengo promozioa da gurea. Hirugarren mailan nabil.

Irakaslea ere bazara.

Bai, hirugarren urtez, Elorrioko eskola publikoan dantza eskolak ematen dizkiet umeei eta amei, eskolaz kanpoko ekintza moduan. Oso gustura nabil. Dantzagaz jolastuz, umeak euren nortasuna eta sormena garatzera bideratu gura ditut: dantzaren lengoiaren bitartez, emozioak onartu eta transmititzeko gaitasuna jorratzea umeekin.

Noiztik egiten duzu dantza?

Hiru urtegez balletean hasi nintzen, baina urteekin dantza garaikidera jo dut. Balletean zerbait falta zitzaidala sentitzen nuen, eta 12 urtegez funkyan hasi nintzen, gero jazzean... Niretzat balleta estetika bat da gehiago, eta markatutako kanonetan sartzen ez bazara —altua eta argala ez bazara, adibidez— kanpoan geratzen zara. Ez dut nire burua kanon horregaz identifikatzen, eta ez dut uste eredu hori aproposena denik umeentzat. Dantza garaikidea, aldiz, libreagoa da, eta gizatasuna eta nortasuna dira oinarria. Barruan daukazuna ateratzeko baliatzen duzu teknika. Klasikoak baino askoz gehiago asetzen nau gaur egun dantza garaikideak.

Anariren ‘Epilogo bat’ entzungai, Berrizen

Berrizko Kultur Etxean arituko da, bihar, 20:00etan

> MUSIKA I. E.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen Udagoieneko

Ostera zikloaren lehenengo hitzordua izango da Berrizko Kultur Etxeko biharkoa. *Epilogo*



Lau musikarik lagunduta jardungo da Anari.

bat azken lana aurkeztuko dute Anari Alberdi azkoitiarrak eta bere taldeak. Iaz kaleraturiko sei kantako diskoa da. Mikel Abrego, Mariano Hurtado, Borja Iglesias eta Xabier Olazabal taldekideen doinuek lagunduko dituzte Anariren ahotsa eta gitarra Berrizko Kultur Etxeko biharko kontzertuan.

Euskaltzaleen Topaguneak antolaturiko Udagoieneko Ostera zikloko lehenengo hitzordua izango da

Udagoieneko Ostera zikloko beste bost hitzorduak Igorren, Bilbon, Arrigorriagan eta Leioan izango dira: Larregi, Hesian, Kepa Junkera eta Sorginak, Su Ta Gar, Ez Dok Hiru eta Miss Karaokegaz.

Portotik sariagaz bueltatu dira L’Atelierreko dantzariak



Ethan Lopez berriztarragaz ikasten dute taldekideek, L’Atelier akademian.

> DANTZA I. E.

Durangoako Feel The Sound taldeko Xian, Aner eta Naroa dantzari gazteek Rock Da House lehiaketan parte hartu zuten, Portugalgo Porto hirian, joan zen asteburuan. Kale dantzen eta hip-hoparen Europako lehiaketa da Rock Da House,

eta bigarren saria eskuratu zuten Durangaldeko dantzariak, 12 eta 14 urte artekoen sailean.

Durangoako L’Atelier dantza eskolan Ethan López Berrizko dantza irakasleagaz ikasten duten Feel The Sound taldeko dantzariak izan dira Porton saria eskuratu dutenak.

Gorka Irazuegi Buruaga | Padelzaleak taldeko kidea | Durango, 1974

“Duela 23 urte padela telebistan bakarrik ikusten zen kirol arrotz eta elitista zen”

20 urte gaz Nojan padelean jokatzen hasi eta 12 urtez Durangon padel irakasle lanetan ibili zen Gorka Irazuegi

> PADELA Maialen Zuazubiskar Gorka Irazuegik hogeitun urte baino gehiago daramatza padelean jokatzen. Padelak izan duen bilakaera azpimarratu du durangarrak, eta kirol hau edozeinek egiteko modukoa dela aitortu du.

Nola hasi zinen padelean jokatzen?

20 bat urte gaz hasi nintzen. Lagun batek etxe bat zeukan Nojan, eta sarritan joaten ginen hura. Lagunaren etxe ondoan padel-pista bat zegoen, eta hanxe hasi nintzen jokatzen. Gaur egun ere aritzen naiz.

Nojan jokatzen hasi eta Durangon padel entrenatzaile izatera pasatu zinen.

Hala da, bai. Hamabi bat urtez irakasle lanetan aritu nintzen Durangon, Jolasleku gimnasioan. Eta gimnasioa itxi zutenean, irakasle lana uztea erabaki nuen.

Nolako garaiak izan ziren?

Politak. Batez ere, polita da padelean jokatzen erakutsi diedan mutil zein neska gehienek padelean jokatzen jarraitzen dutela jakitea.

Duela 23 urte jende gutxi aritzen zen padelean; gehientsuenak pertsona famatuak ziren. Inoiz entzun behar izan duzu Aznarren kirolean aritzen zarela?

Bai, sarritan entzun behar izan dut hori. Batez ere, hasi nintzenean. Orduan jende oso gutxi jokatzen zuen, hemen frontoia, pala eta tenisa zeudelako modan. Padela telebistan bakarrik ikusten zen kirol arrotz eta elitista zen.

Hala ere, azken urte hauetan, padelak bilakaera nabarmena izan duela ematen du.

Bilakaera izugarria. Ni jokatzen hasi nintzenean jende gutxi aritzen ginen. Ia ez zegoen zelairik eta padeleko palak oso garestiak ziren. Orduan, hiru pala marka baino ez zeuden, eta guztiak oso garestiak ziren. Beraz, jende askok ezin zuen jokatu. Orain, berriz, tenisko erraketa-etxerik gehienek padeleko palak egiten dituzte, eta ho-



20 urte gaz hasi zen jokatzen Gorka Irazuegi.



Padelzaleak taldeko kide batzuk.

rrek jende gehiagok jokatzea ekarri du.

Instalazioen hobekuntzak ere padela indartzen lagundu dutela esango zenuke?

Dudarik gabe. Zelai gehiago egoteak jende eta talde gehiago egotea ekarri du. Hala ere, Durangon zelai falta izugarria du-

“*Lehen ez bezala, gaur egun haur asko txikitatik hasten dira padelean*”

dea eta aurkariak. Gaur egun, ekimen berri honi esker, jende asko ezagutzeko aukera dago.

Egun padela indar dezente hartzen ari da Durangaldean.

Durangon talde indartsuak daude. Esaterako, Padelzaleak 200 pertsonatik gora batzen gara, eta hori sinestezina izango litzateke duela 20 urte. Gainera, azken urte hauetan padela oinarria sendotzen dabilela esan daiteke. Orain arte, beste kirol batzuetan aritzen zen jendea padelean igarotzen zen nagusitzerakoan. Orain, berriz, haur asko txikitatik hasten dira padelean jolasten.

Padelzaleakeko kidea zara. Nola ikusten duzu kluba?

Klub indartsua garela esango nuke. Egun zazpi talde gaude, lau gizonezkoenak eta hiru emakumezkoenak. 20 pertsona gaude taldeko, gutxi gorabehera. Gainera, lehen esan bezala, gero eta jende gazte gehiagok ematen dute izena, eta horrek izugarri indartzen du taldea.

Asteburuan San Fausto txapelketako finalak jokatuko dira, eta Alex Petralandaren oroimenezkoa. Domekako finalak nolako partidua izango direla aurreikusten duzu?

Beste urte batzuetan ez bezala, aurtengo txapelketan herriko jokalariek izan dira gehienak, eta finalak ere herritarren artekoak izango dira. Bai gizonezkoetan, bai emakumezkoetan, seguru nago final borrokatuak ikusiko ditugula. Emakumezkoetan, gainera, talde bien artean 20 urte inguruko alde dagoela aipatu behar da.

Bestalde, Marcello Jardim brasildarrak ere partidua jokatuko du asteburuan Durangon.

Bai, hala da. Alex Petralandaren omenez, nazioartean jokatzen dabiltzan jokalarien arteko partidua antolatu dute. Eta bertan izango da Marcello Jardim. Brasildar hau munduko jokalaririk onenetarikoa izan zen orain 20 urte, eta gaur egun ere onenen artean dabil. Beraz, animatu dadila jendea partidu hauek ikustera, ikuskizuna ziurtatuta egongo da eta.

gu. Egun guztian, hainbat jende —federatuak eta federatu gabek— igarotzen da zelaietatik, eta askok beste herri batzuetako instalazioetara joan behar izaten dute, arratsaldetan umeentzako ikastaroak egoten baitira.

Padelak zer eskaintzen dizu?

Denetarik duen kirola dela esango nuke. Fisikoki ondo egoten laguntzen dizu, eta une oro burua lanean edukitzea eskatzen dizu. Hori gutxi balitz, kirol oso dibertigarria da.

Jendea ezagutzen laguntzen du padelak?

Bai, sozialki kirol oso ona dela esango nuke. Esaterako, orain, modan dago zerrendak egin, ordu bat jarri, eta izena eman duten beste kirolari batzuekin partidua jokatzea. Duela urte batzuk ez zen horrelakorik gertatzen. Norberak bilatu behar zituen entrenatzeko bikoteki-

Isasi eta Zuazubiskar, pistako euskal erreferente nagusiak etxekoak dira

Espainiako txapelketan bost domina irabazi dituzte Eustrak-Euskadi taldeko txirrindulariek



Illart Zuazubiskar eta Ziortza Isasi UCI mailako Eustrak-Euskadi taldeko txirrindulariak dira.

> PISTA Joseba Derteano Pistako euskal txirrindularitzaren goren-gorenean daude Illart Zuazubiskar (Abadiño, 1990) eta Ziortza Isasi (Elorrio, 1995). Euskal Herrian erreferenteak

dira, urtean askoan Unai Eloorriaga eta Leire Olaberria izan ziren moduan. Gazteak dira, eta datozen urteetan euskaldunek pistan utziko duten lorratza euren bizikleten gurpiletatik

irtendakoa izango da, hein handi batean. Joan zen asteburuko Espainiako txapelketa da horren adibide. Bien artean bost domina eskuratuta, euren maila berretsi zuten.

Isasik urrezko domina irabazi zuen taldekako jazarpen proban eta brontzezko beste bi eskuratu zituen madisonean eta taldekako abiadura proban. Illart Zuazubiskarrek brontzezko domina bi gehitu zizkion bere palmare-sari —taldeko zein bakarkako jazarpenean— Palmako (Balear Uharteak) belodromoan jokatu zen txapelketan. Txirrindulari biak Eustrak-Euskadi taldeagaz aritu ziren. Gaur egun lau ziklistek osatzen dute UCI mailako taldea eta erdiak eskualdekoak dira. Isasik, beheko taldeetan trebatu ostean, abuztuan eman zuen talde nagusirako saltoa.

Europako txapelketa Egunotan pistako Europako Txapelketa jokoan dago Alemanian, eta han dabil Zuazubiskar. Abadiñarrak hainbat probatan parte hartuko du.

ADITUAREN TXOKOA

IÑAKI IZA ZARAZUA
Pilota



Kaiolako maisuaren bidea

Esku pilota profesionalak dituen hiru txapelketa nagusietako atarian, pilotazaleok txapela irabazteko faboritoen zerrenda egitera jotzen dugu. Azken urteotan izen berri ugari gehitu ditugu zerrenda horietara, eta, era berean, beste batzuk kentze-ara pasatu gara: erretiratu direlako, pilota utzi behar izan dutelako edo, batez ere, belaualdi berriak oso indartsu pasatu direlako esku pilotaren erreferente izatera. Jokatzen ari den lau t'erdiko txapelketaren hasieran konturatu nintzen Aimar Olai-zola ez zela, gehienentzat, txapela irabazteko hautagai nagusia. Bengoetxea, Urrutikoetxea, Altuna III edota, kasu batzuetan, Ezkurdia ziren pilotazaleentzat txapela janzteko faboritoak. Hala ere, modalitate horren historian inork baino garaikur gehiago irabazi dituen pilotariak pasa den asteburuan beste behin erakutsi zuen kaiolan inor baino hobeto moldatzen dela, Bengoetxeari, gaur egungo txapel-dunari, erritmo biziko partidurik zoragarri batean 22-18 irabazita. Horren ondorioz, ongi bideratuta utzi du beste finalurreko bat jokatzeko txartela. Momentuz, ligaxkako partidurik zailenari ezin hobeto egin dio aurre, baina bi lehia ditu aurretik larunbatean hasitako lana borobiltzeko.

Berak ere badaki zortzigarren txapela irabazteko bidea ez dela batere samurra izango, baina nork pentsatuko zuen, orain dela hamabost urte, zazpi txapel irabaziko zituela? Kalitatea ez zaio falta.

Frades, “gehiagorako gosez” geratu da

Munduko Ironman Txapelketa 22. tokian amaitu du

> IRONMANA J. D. Pozik, baina ez asebeteta. Sentsazio horiekin itzuli da Gurutze Frades Ironmanen munduko txapelketatik. Konan (Hawaii) lortutako 22. postua baino gehitxoago lortzeko nahiagaz geratu da. “Pozik nago, nahiz eta ezin izan dudan nire potentzial guztia atera. Honaino heletzea kostatzen denagaz, gogorra da egun ona ez izatea. Duda barik, gehigorako gosez nindoan”, adierazi du sare sozialetan.

Bizikletako tartean galdu zituen aurrerago amaitzeko aukerak. “Ez nintzen behar mo-

duan sentitu”, onartu du. Korrika hasi zenerako, aurrekoengandik urruti zegoen, 31. postuan, baina bereziki trebea den espezialitatean hainbat postu aurreratzea lortu zuen, 22.era heldu arte. “Korrika ere ez nintzen inoizko ondoen sentitu, baina martxa ona neraman eta postu batzuk aurreratzea lortu nuen”, kontatu du.

Egin duena baino lasterketa “askoz hobea” egin dezakeela uste du, baina badaki “munduko onenekin” lehian zebilela. “Harro nago borrokatu naizen postu bakoitzeko”, adierazi du.



Gurutze Fradesek bigarren urtez jarraian parte hartu du Konan.

hitz **#salduenak**
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

BERRIAK JAIO GINEN
Jon Maia
Lanku

JENIS JOPLIN
Uxue Alberdi
Susa

NOLA HELDU NAIZ NI HONAINO
Kattalin Miner
Elkar

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS-145-13



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

Durango herrigunean

*Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Egun handia izan zen niretzat; emozioei eustea kosta egin zitzaidan”

Laureano Lara erretiratu egin da 42 urteko ibilbidearen ostean, eta omenaldia egin diote

> OMENALDIA J.D.

Laureano Larak (Berriz, 1963) 42 urteko ibilbide oparo eta arrakastatsua egin du, eta merezi moduko errekonozimendua jaso du sorterrian. Joan zen aseturuan Olakueta pilotalekuan prestatu zioten omenaldian “emozioei eustea kosta” egin zitzaiola onartu du. “Kickboxingaren munduko zein hortik kanpoko jendea batu zen. Niretzat oso garrantzitsua da hori. Egun handia izan zen”, gogoratu du.

Bere bizitza kirolari buru-belarri eskaini diola esatea ez da ahoberokeria, 12 urte zituela izan zuen-eta estreinaldia, 1975ean. Adin-nagusitasunera heldu aurretik, 17 urtegeaz, Suitzan borrokatzeko aukera eman zioten. “Esperientzia berezia

izan zen, aukera hori eskaintzea ondo nenbilen seinale zelako”. Hurrengo hamarkadetan bere palmaresa loratuko zuten lorpenak erdietsi zituen, Espainiako hiru txapelketa —full contact-ean—, besteak beste. Europako txapelketan azpitxapeldun geratutakoa ere bada.

Ez du ibilbide erraza izan. Arantzak ere izan ditu bidean, baina bizitzako “irakasbide” moduan hartu ditu. Eta ibilbide luze horren amaieran, “bere buruagaz bakean” erretiratzeko aukera eskaini dio hainbeste eman dion kirolak. Kickboxingean Espainiako Txapelketa lehiatzeko aukera eskaini diote aurten. “Baietz erantzun nuen. Merezitako moduan erretiratu gura nuen. Hainbeste urteko



Berrizen 30 urte baino gehiago daramatza karatea irakasten.

ibilbidearen ostean azalpenik eman gabe erretiratzeko tristea iruditzen zitzaidan. Beraz, azken borrokaldi moduan hartu nuen”, gogoratu du. Azkenean, ekainerako aurreikusitako borrokaldia ez zen gauzatu, aurkariak ez zuelako mediku-azterketa gainditu. Borrokaldirik ez, baina bila zebilen sentsazioak

aurkitu zituen eta gerrikoari eutsi zion. Ez zuen gehiago behar.

Aurrerantzean bere beste pasioan zentratuko da: klaseak ematen, irakasle. Berrizen 30 urtetik gora daramatza karate klaseak ematen eta, Durangon, Maristetan, kicboxinga irakasten du. Zaldibarren eta Elorrioren ere irakasle aritutakoa da. “Asko

gustatzen zait. Kolpeak irakastea baino gehiago da. Ikasleak ezagutu behar dituzu, zer arazo duten eta zelan lagundu ahal zaien. Psikologo lana ere eskatzen du. Heziketa prozesu bat ere bada, azken batean. Nik horrela ulertzen dut eta modu horretara jokatzeko ahalegintzen naiz”, adierazi du berriztarrek.



Berrizko omenaldian erakustaldia eskaini zuen bere lagun eta zaleen aurrean. Laureano Fight Club



Berrizen, Orlan Isoird alkateagaz batera. Laureano Fight Club



Asteburuan Valle de Egües taldearen kontra jokatuko dute.

Aurkariak zanpatuta hasi du denboraldia Zornotza STk

Jokatutako hiru partiduak batez beste 111 puntu sartuta irabazi ditu

> SASKIBALOIA J.D.

Zornotza Saskibaloi Taldeak indartsu eta aurkariak zanpatuta hasi du denboraldia. Jokatutako hiru partiduak irabazita, EBA mailako liderra da.

Zornotzaren hasiera ona ez litzateke albistea izango bizi izan duen testuinguru korapilatsuagatik ez balitz. Liga hasteko aste gutxiren faltan, jokalaririk barik zeuden, eta jokatzeko adina lagun batu zituztenean, liga hasiera ate-joka zuten. Presta-

tzeko ia astirik gabe hasi zuten denboraldi ofiziala. Baina, garaipenak ez ezik, eurak lortzeko modua ere nabarmentzekoa da. Hiru partiduak batez beste 37

Aurkariak baino askoz gehiago izan da. Batez beste 37 puntuko aldeagaz irabazi du

puntuko aldeagaz eta 111 puntu sartuta irabazi ditu. Beraz, ikuskizuna ere eskaini dute zaleen gozamenarako.

Asteburuan, Nafarroan

Asteburuan martxa horri eusten saiatuko dira. Nafarroan jokatuko dute, Valle de Egües taldearen kontra. Garaipenak pilotzen jarraitzeko kantxa proposa dirudi, talde nafarrak orain arteko partidu denak galdu dituelako.



GREMIOEN GIDA



GARBIKETA

**AZKARGI
GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goieta, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215



ZURGINTZA

leike aroztegia &
diseinua &
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

ATERPE ARROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



DEKORAZIOA

JAIObarnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen,
armairu aurrekaldeen eta
era askotariko altzairuen lakadura.
Pintura eta pintura apaingarria.
Era guztietako zaharberitzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



ITURGINTZA

Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

**UNAI
GARAY**

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



ITURGINTZA

ALDEKOA-OTALORA

ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoootalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 Ind. Arzubia - Pab. 13-14
IURRETA **ABADIÑO**
946 202 768 944 071 791


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO
188 PK.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

anboto.iragarki-laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Errepresentatzen - Iragarki laburretatik bereizituta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Durango. Durangon, Askatasun Etorbidean etxea salgai. Hiru logela ditu, komuna, sukaldea, egongela, despentsa, balkoia eta ganbara. Tel.: 674-74 36 97.

Zornotza. 3 logela, egongela 1, sukaldea, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatu berria. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Tel.: 695 70 18 58 Posta: idurrel3@hotmail.com.

EROSI

Durango. Durangaldean berrizteko dagoen baserri baten bila nabil, lursail apur batekin. Ez zait inporta baserria zein egoeratan dagoen. Gehienez, 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel.: 618-93 62 14.

ERRENTAN EMAN

Berriz. Baserri bateko lehen solairua alokagai dago Sarrián (Berriz), lur saila barne. Tel.: 655-72 52 52 eta Tel.: 652-75 47 23.

Elorrio. 3 logela, 2 komun, igogailua, garajea txokoarekin eta berdegunea. Oso leku onean. Harremanetarako, Tel.: 675-70 15 30.

ERRENTAN HARTU

Durango. Pertsona batentzako 1-2 logelako pisu baten bila nabil. Tel.: 695-75 23 43.

Durango. 24 urteko neska gazte eta arduratsua naiz, Zornotzan lanean hasi berri dena eta han inguruan pisu bila nabil. Durango-Gernika-Zornotza inguruan bila hastekotan. Pisu eta edota pisukide bila nabil. Interesatzan bazaizu, edo interesa dakioken inor ezagutuko bazenu, deitu! Tel.: 638-90 86 10.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. 40 m2-ko lokala alokagai Antso Estegiz kalean, Durangon. Zabala, argitsu eta erabilera ugariak. Egokia bulego edo alokailu serioetarako. 350 euro hilean. Tel.: 635-74 59 02.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientzia daukat. Tel.: 661-12 73 28.

Durango. Bikote gaztea lan bila nabil baserriak zaintzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-83 18 18 Tel.: 632- 92 71 94.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Tel.: 631-19 79 51.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordurako langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein ordurako langilea. Tel.: 632-92 71 94.

Durango. Esperientziadun neska lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko langile moduan. Tel.: 661- 12 73 28.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Gauzei zein orduka lan egiteko prest, kanpoko langile moduan. Tel.: 602-08 96 62.

Durango. Neska euskalduna ikasketekin eta esperientziarekin umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest dago. Tel.: 662-36 41 67 Tel.: 946-81 39 40.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 660-18 46 03.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka zein arratsaldean lan egiteko prest. Tel.: 655-64 14 21.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordurako langilea. Tel.: 631-70 05 73.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Esperientzia daukat eta gauzei ere lan egiteko prest nago. Tel.: 698-74 23 57

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordurako langilea. Tel.: 605-22 13 56.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko edo kanpoko langile moduan. Berehalak hasteko moduan. Tel.: 632-44 11 55.

Durango. Haurrak zaindu eta klase partikularrik ematen ditut. Hezitzaile moduan lan egin izan dut. Kontaktuan jartzeko: 630 080 220.

Durango. Emakume arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientzia eta seriotasuna. Tel.: 631-95 28 27.

Durango. Neska arduratsua, esperientziarekin lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordurako langilea. Tel.: 632 88 97 96.

langilea. Tel.: 632 88 97 96.

Durango. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein ordurako langilea. Tel.: 632-63 60 69.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordurako langilea. Tel.: 631-44 23 77.

Durango. Garbiketaren edo pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Lanaldi erdian edo orduka. Tel.: 631- 28 71 29.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-87 49 24.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita jostun laguntzaile ere. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka zein gauzei lan egiteko prest. Tel.: 631-37 88 15.

Durango. Lan bila nagusiak zaintzen. Arratsaldetan. Tel.: 697-49 20 58.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko langile moduan. Tel.: 632-06 11 03.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langile moduan, edo orduka. Tel.: 632- 43 64 62.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 632-41 05 61.

Durango. Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Orduko langile moduan. Tel.: 655-85 79 95.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Asteburuetan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 631-95 28 27.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, barneko edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat. Tel.: 631-95 28 27.

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordurako langile moduan. Gauzei ere lan egiteko prest. Tel.: 632-72 29 48

Durango. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen, zein garbiketa lanetan, ile-apaintzaile moduan edo zerbitzari moduan. Tel.: 612-26 35 60.

Durango. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen, edo garbiketaren. Kanpoko, barneko edo ordurako langilea. Tel.: 642-98 60 19.

ordurako langilea. Tel.: 642-98 60 19.

Durango. Neska arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordurako langile moduan. Tel.: 602-81 24 42.

Durango. Neska arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko langile edo kanpoko langile moduan. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 642- 98 60 19.

Durango. Emakume arduratsua lan bila nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordurako langilea. Asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-99 90 79.

IRAKASKUNTZA

Durango. LHko ikasleei klase partikularrik emateko prest. Hiru urteko esperientziaduna. Klaseak umeen beharretara diseinatu ditut. Ikasgaiak: matematika, euskara, gaztelania eta ingelese. Klaseak ikaslearen etxean, nirean edota liburutegian ematen ditut. Interesa baduzu, jarri harremanetan mesedez: anatu21@gmail.com / 678 29 91 38.

Durango. Arratsaldetan LHko ikasleei klase partikularrik emateko prest, Durangon. HHn eta LHn graduatua. EGA eta ingeles tituluak ere badauzkat. Esperientziaduna. Harremanetan jartzeko: jokin396@gmail.com

Durango. Euskalduna, eskola partikularrik emateko prest nago. Tel.: 697-32 92 88.

Durango. Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezikuntzan eta DBH partikularrik banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

GAINERAKOAK

Durango. Lan bila nabil erakuntza zein lorezaintza lanetan. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Barneko, kanpoko edo ordurako langile moduan. Tel.: 602-83 18 18.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Abadiñoako Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.
Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da. Bidali curriculumak: abarketeruena@gmail.com helbidera edo deitu 660-18 74 05 zenbakira.

Lurreta. Zerbitzari bila gabiltza barran eta jangelan lan egiteko. Curriculumak betixu@gmail.com helbidera bidali edo 946- 81 78 47 zenbakira deitu.

ERROTA OSTATU/ATERPETXERAKO

GARBIKETA, ARRETA ZERBITZU EDOTA TABERNA LANETARAKO

.....
- Euskalduna izatea ezinbesteko baldintza izango da.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Hurbiltasuna, nortasuna eta euskalzaletasuna.
.....

Elkarrizketa bidez baloratuko da.

CV-k bidali urriaren 31a baino lehen, LAN BOLTSA erreferentziarekin zuzendaria@ibaizabalikastola.eus helbidera.

ETXECO LANAK

Berriz. Berrizen etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabiltza, ahal dela esperientziaduna. Astean 3-4 ordu inguru. Kotxea beharrezkoa. Deitu edo bidali whatsapp: 653-72 81 87.

GAINERAKOAK

Sukalde diseinatzaile-saltzailea behar da.
Gutxienez 2-3 urteko esperientzia baloratuko da.

Tel.: 605-74 01 76.

Lurreta. Ziba elkarteak, eskolaz kanpoko jarduerak emateko begiraleak behar ditu: antzez-jolasak, robotika. Interesa izanez gero, curriculumak igorri_cv@zibaekarte.org helbidera.

Zornotza. Berehalak lanean hasteko, lan bertikalean aritzeko langilea behar dugu. Lan eremua Zornotza eta inguruak. Bidali curriculumak produccion@90gradu.com

Denetarik

Bizikleta tolesgarria salgai.
Dahon markako bizikleta tolesgarri bat saltzen dut. 200 euroren truke. Tel.: 686-44 23 67

EMAN / HARTU

Bi katakume oparitzen ditut.
Bi katakume zuri erregalatzen ditut. Tel.: 722-22 23 38

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Urriaren 22an, 17:00etan,
Elorriko Arriolan**

Drag-e

Martxoan Bilbon estreinatuta zuten 'Drag.E uraren bila' ikuskizuna, eta orain euren herrian aurkeztuko dute Logela Multimedialeko elorri-rrek, domekan. Antzerkia, musika eta dantza uztartzen ditu ikuskizunak, eta irudien proiektzioak ere egingo dituzte.



Musika

:: BERRIZ
URRIAREN 21ean
20:00etan , Anari, Kultur Etxean.
URRIAREN 26an
19:00etan , Galesko artisten emanaldia, Kultur Etxean.
:: DURANGO
URRIAREN 21ean
22:00etan , Los Juanma, The Enfermos eta Taladro 11, Sapuetxe gaztetxean.
:: ELORRIO
URRIAREN 20an
20:30ean , Arantza eta Pantxo, Arriolan.
:: ZORNOTZA
URRIAREN 20an
21:00etan , Mikel Urdangarin, Zornotza Aretoan.



Erakusketa

:: BERRIZ
AZAROAREN 12ra arte
Sergio Moreno marrazkiak, Kultur Etxean.
:: DURANGO
URRIAREN 22ra arte
'Durango jaietan', San Agustingo sarreran.
URRIAREN ZEHAR
'Paisaia oroimenean', Kurutzasantu Museoa.



Antzerkia

:: BERRIZ
URRIAREN 20an
18:00etan , 'Burbujas de papel', Kultur Etxean.
URRIAREN 27an
18:00etan , 'Apustua', Kultur Etxean.
:: ELORRIO
URRIAREN 21ean
20:30ean , 'Iragana, Lahar eta larrosa', Arriolan.
URRIAREN 22an
17:00etan , 'Drag-e uraren bila', Arriolan.
URRIAREN 27an
20:30ean , 'Ojos de tierra', Arriolan.

:: ZORNOTZA
URRIAREN 27an
20:00etan , 'Malas palabras', Zornotza Aretoan.



Jaiak

:: DURANGO
URRIAREN 20an
09:00etan , 'Ezagutu Durango eta bere inguru' nagusientzako mendi ibilaldia. Irteera udaletxe plazaatik.
11:00-19:30 , Birziklapen komunikazio kanpainaren stand informatiboa, Ezkurdin.
17:00etan , Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldia.
18:00etan , tortilla txapelketa txosnagunean.
18:30ean , 'El gran Dimitri' antzezlan, Aurora Abasolo musika eskolako parkean.
19:30ean , Ekialdeko dantzen erakustaldia Khuzayma elkartearen eskutik, Andra Marian.
21:00etan , Eat My Fear, Genderlexx, Godoys, Wonderers eta Zoo taldeen kontzertuak, txosnetan.
22:00etan , Asier Bilbaoren ikuskizuna, Andra Marian.
22:30ean , Bertso saioa, San Agustinen: Andoni Egaña, Unai Iturriaga, Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Jesus Mari Irazu eta Amets Arzallus.

URRIAREN 21ean
07:00etan , Diana txistulariekin.
07:30ean , Zezenak Dira dultzaineroekin.
10:30ean , xake txapelketa federatu gabeentzat, Ezkurdin.
11:00etan , nekazaritza azoka, Ezkurdin, eta umeentzako mozerro tailerra, Andra Marian.
11:00-19:30 , birziklapen komunikazio kanpainaren stand informatiboa, Ezkurdin.
11:30ean , haurrentzako puzgarriak, txosnagunean.
12:00etan , patata-tortilla txapelketa, Landako Gunean.
12:00-13:00 , Durango Irratia lehiaketa.

12:30ean , Euskal Selektzioaren gurdun aulkien padel egokituaren erakustaldia, Landako kiroldegian.
13:00etan , haurren mozerro desfilea eta sari banaketa, Andra Marian.
14:30ean , elkartasun bazkaria, txosnagunean.
17:30ean , 16 urtetik beherako errektoriaren txapelketa.
18:30ean , taldekako mozerro desfilea, Madalenatik Andra Marira, Sugarri fanfariagaz.
19:00etan , 3. mailako areto-futbol partidua, Landako kiroldegian. Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek, txosnagunean.
20:00etan , DJ Goikolea, Andra Marian.
21:00etan , zezen suzkoa, Ezkurdin.
21:30ean , Ghanako txaranga, animazioa, Alde Zaharretik.
22:00etan , Queen taldeari tributua, Andra Marian. Luhartz, txosnagunean.
23:00etan , Vulcano orkestra, Ezkurdin.
00:00-03:00 , Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, Kurutzitza kalean.
URRIAREN 22an
07:00etan , Diana txistulariekin.
07:30ean , Zezenak Dira dultzaineroekin.
10:00etan , nesken lehen mailako San Fausto VI. Padel txapelketako finala, Landako kiroldegian.
11:00etan , mutilen lehen mailako VI. San Fausto txapelketako finala, Landako kiroldegian. Haur parkea, Ezkurdin. Haurrentzako tailerrak, Ezkurdin. Ohe elastikoak, zezen mekanikoa eta jolasak, Landako Gunean.
12:00etan , Kalejira txistulariekin. Poniak eta zaldiak, Landako Guneko parkean. Bilbotarrak taldeagaz kalejira, Alde Zaharretik.
12:00-14:00 , Arku-tirorako gunea, Landako Guneko parkean.
12:30ean , Padel World Tour erakustaldia, Landako kiroldegian.

13:00etan , Bilbotarrak taldearen bilbainadak, Andra Marian.
16:00-19:00 , haurrentzako birziklatutako material tailerrak, Ezkurdin.
17:00etan , Mariachien kalejira, Alde Zaharretik.
17:30-19:00 , Danok dantzara, Ezkurdin.
18:00etan , txokolatada, txosnagunean.
18:30ean , Irulitza fanfarrea, Alde Zaharretan. Rezikletas ikuskizuna, Santa Ana plazan.
19:30ean , Patxikotxuri eta jaiiei agur esateko kalejira.
20:00etan , jaien amaiera su artifizialekin.
:: ZALDIBAR
URRIAREN 27an
19:00etan , Durangaldeko bertso eskolen ikasturte hasierako jaiak.



Jardunaldiak

:: IURRETA (Sarrionandiari esker ona adierazteko)
URRIAREN 26an
18:30ean , 'Joseba Sarrionandiaren ondarea' literatur berbaldia, Aitzpea Azkorbebeitia, Jose Julian Bakedano eta Kristina Mardarasegaz.
19:00etan , Isaac Xubinen 'Tiempo de exilio' errezitaldia, Ibarretxe kultur etxean.
URRIAREN 27an
17:00etan , 'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako' haurrentzako ipuin kontaketa, 6 eta 7 urtekoentzat.
18:00etan , 'Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako' haurrentzako ipuin kontaketa, 8 eta 9 urtekoentzat.
19:00etan , 'Izarrek marrazten' antzezlan, Ibarretxe kultur etxean.
URRIAREN 28an
11:00etan , 'Josebaren lekuak' ibilaldi literarioa, Aita San Migel plazaatik abiatuta. Izen-ematea, biblioteca@iurreta.eus edo 946812726.
18:30ean , 'Eskerrik asko, Joseba' jardunaldiko ekitaldi nagusia, Askondon.



ZINEMA

:: BERRIZ KULTUR ETXEA
Verano 1993
. barikua 20 : 22:00
. domeka 22 : 19:00

:: DURANGO ZUGAZA
Handia
. barikua 20 : 19:30-22:00
. zapatua 21 : 19:30-22:30
. domeka 22 : 19:00-21:30
. astelehena 23 : 18:30-21:00
. martitzena 24 : 20:00
. eguaztena 25 : 20:00

Geostorm
. barikua 20 : 19:30-22:00
. zapatua 21 : 17:00-19:30-22:30
. domeka 22 : 16:30-19:00-21:30
. astelehena 23 : 18:30-21:00
. martitzena 24 : 20:00
. eguaztena 25 : 20:00

Una mujer fantástica
. barikua 20 : 19:30-22:00
. zapatua 21 : 19:30-22:30
. domeka 22 : 19:00-21:30
. astelehena 23 : 18:00
. martitzena 24 : 20:00
. eguaztena 25 : 20:00

Haurrak eta lapurrak 2
. zapatua 21 : 17:00
. domeka 22 : 16:30

Operación cacahuete 2
. zapatua 21 : 17:30
. domeka 22 : 17:00

Las aventuras de Alicia en el país de las maravillas
. astelehena 23 : 08:15

:: ELORRIO ARRIOLA
Handia
. zapatua 21 : 22:00
. domeka 22 : 20:00
. astelehena 23 : 20:00

:: ZORNOTZA ARETOA
Operación Cacahuete 2
. barikua 21 : 17:00
. zapatua 22 : 17:00

Handia
. zapatua 21 : 19:30-22:00
. domeka 22 : 20:00
. astelehena 23 : 20:15
Tarde para la ira
. martitzena 24 : 20:15



> BOTIKAK

BARIKUA, 20 09:00-09:00	ASTELEHENA, 23 09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza	Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
09:00-22:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño	Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	22:00-09:00
ZAPATUA, 21 09:00-09:00	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango	MARTITZENA, 24 09:00-09:00
Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza	Etxebarria Montevideo etorb. 2 - Durango
09:00-13:30	09:00-22:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
De Diego Intxaurrondo 22. - Durango	Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	22:00-09:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango	EGUAZTENA, 25 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	Unamunzaga Muruetatorre 2C - Durango
Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	09:00-22:00
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Eguren, Isabel Trañabarren 15 - Abadiño	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza
09:00-14:00	22:00-09:00
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00	EGUENA, 26 09:00-09:00
Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño	Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	09:00-22:00
DOMEKA, 22 09:00-09:00	Sanchez, Miren Itziar Urbite poligonoa, 4 P8, Abadiño
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza	Iruarrizaga, Karme San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00	22:00-09:00
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea



Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Helene (693. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



> Gure amama **Irenek** urriaren 26an urteik eitten dauz. Musu potolo-potolo bana etxekuen partetik lurretatik, Zengoitetik eta Sarritik.



> Urriaren 25ean aitaxo **Asierrek** urteik eitten dauz. Musu potolo bana etxekuen partetik.



> Zorionak, potxolo! Oso ondo pasa eguna. Jarraitu beti bezain alai! Muxu asko familia guztiaren partez.



> **Elene Espinosa Arregik** urte bat bete zuen ostegunean, hilak 19. Musu handi bat etxeko guztien partez.



> Zorionak, **Nahikari**, etxeko danon partez! Musu handi bat!



> Zorionak, **Aroa**! Musu handi bat zure gurasoen partez. Mua!



> Durangoko **Angelek** eta bere iloba **Liherrak** urteak betetzen dituzte urrian. Zorionak eta musu handi bat familia guztiaren partez. Ondo pasa!



> Bi lehengusu hauek urteak bete dituzte. **Beñatek** 11 urte eta **Urtzik** 8. Zorionak familiakoon partez.



Anbotoren lagunak

EUSKOTZARAKek emandako otzara zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org





“Durangon 120-140 dozena arrautza salduta nago goiz batean; orain, 20 dozena ere ez”

Gazteak berriro baserrietara hurbiltzeak poztu egiten du bizi osoa baserrian egin duen emakume hau

> AKUILUA Aitziber Basauri
Bizitzeko, gurago baserria kalea baino. Dudarik ez du Miren Intxaurreagak. Bestelakoa da giroa bere berbetan. Hori bai, lan gehiago ere egin behar da. “Beti dago zeregina baserrian, ez dago ordu librerik”, dio. Bizi guztia baserrian lanean darma Mirenek, eta dena oso desberdina dela dio.

Zenbat urte baserria gobernatzen?

Baserrian jaiotakoa naiz ni, eta 24 urtegez ezkondu nintzen Berrizera, Errotaberri baserrira. Orduan behi bi genituen, oilok ere bai. Bizi guztia daramat baserrian lanean. 13 urtegez Mallabitik Eibarrera joaten nintzen astoa hartuta, esnea saltzen. Eguenetan, salgaiak ere eramaten nituen plazara. Goizetan Eibarrera, eta arratsaldean eskolara joaten nintzen.

Asko aldatu da baserria?

Asko! Bizimodua guztiz aldatu da. Gure gaztaroa eta gaur egungoa ez da berdina. Dena aldatu da. Onera ala txarrerara? Ez da erraza asmatzen. Oso desberdina da.

Miren arrautzerie lez ezaguna zara Berrizen.

Bai, arrautzak saltzen genituen lehen. Etxerik etxe, tabernetan... saltzen genituen. Baina, apurka-apurka, salmentak jaitzen joan ziren. Senarra 45 urtegez hil zen, eta, gero, semea ibili zen arrautzak banatzen. Baina, horregaz bizimodua ezin zela aurrera atera ikusita, beste lan batean hasi zen, eta utzi egin genion arrautzak etxerik etxe sal-

tzeari. Durangoko plazara baino ez genituen eramaten. Gaur egun ere jarraitzen dut.

Nolako plaza da Durangokoa?

Oso plaza ona izan da, baina orain oso gutxi saltzen da. Durangon 120-140 dozena arrautza salduta nago goiz batean, duela 40-50 bat urte. Orain, 20 dozena ere ez ditut saltzen. Ez nintzen ni bakarrik gainera. Hiruzpalauk saltzen genituen eta denontzat zegoen tokia. Orduan, jendea merkatura joaten zen. Merkaturia bete egiten zen. Orain inor ez dabil. Saltzaileak gutxi, eta erosleak ere bai. Hala ere, etxean badugu genero nahikoa, eta plazara joaten jarraitzen dut. Gustatu egiten zait joatea. Sagarrak, kiwiak eta ortuko barazkiak ere eroaten ditut plazara.

Galdu egingo da merkaturia?

Oraingo martxan, baietz esango nuke. Saltoki handiak zabalitzen hasi zirenean hasi zen galtzen. Jendeak ez du lehenagoko ohitura plazara joateko eguneko jeneroa erostera. Denetarik dugu

d e n -
d a n .

Lehen, sasoiari sasoikoa baino ez zegoen; orain, urte guztian duzu edozer, dena. Supermerkatu handira joaten gara eta gurdia betetzen dugu, jeneroa nongoa den begiratu ere egin gabe.

Badago baserrietik bizimodua aurrera ateratzerik?

Baserri handia eta produktio handia behar dira horretarako. Baserrian bizita, etxeko norbaitek kanpoan lan egiteak ere laguntzen du, baina oso gaitza da. Norberak ere bizi egin behar du.

Gazteak berriro ere baserrietara hurbiltzen ari dira. Nola ikusten duzu hori?

Poztu egiten nau. Garai batean asko eta

asko kalera joan ziren, baserriak utzita. Pinua etxeetaraino sartu zen. Tristura sortzen dit horrek. Orain, berreskuratzen ari dira baserri asko.

Berton bertokoa sustatzen hasi dira herrietan.

Bai, gazteak horretan hasten badira, baliteke aldatzea, baina...

Lana eskatzen du baserriak?

Bai. Baserria ez da kalea lakoa. Abererik ez baduzu ere, lan egin behar da. Eta are gehiago abereak badituzu. Ezin dira abandonatu.

Emakumeak izan dira baserrietako ardatza eta euskarria. Nola bizi izan duzu hori?

Beti tokatu zait lana egitea. Zazpi neba-arreba ginen eta denok lagundu behar genuen. Garai batean garia ere batzen genuen. Emakumeak pisu handia izan du baserrian, bai. Andrazkoek gauza asko egiten zituzten gure sasoiari: sorotan edo ganaduagaz, adibidez. Aparte, etxeko lanak. Gizonezkoek ere lan asko egiten zuten, baina desberdina zen.

Orain ez dauden beste lan batzuk egiten ziren?

Lehen inguru guztia sorroa zen, landutakoa. Orain zelaia da dena. Oso gutxi da landutako lurra. Ganaduarentzako zelaia da gehiena. Negutegiak jartzeko.



LAUHORTZA

AMAIA UGALDE BEGOÑA

Kazetaria



Egiaz

Umea nintzela, gau batez aitari galdetu nion ea hona ere gerra etorriko ote zen egunen baten. Ez dakit zenbat urte edukiko nituen, baina telebistan ziurrenik Yugoslaviako gerrako irudiak ikusi eta gero egingo nion galdera hura aitari.

Beste egun batez, ahizpek logelan zuten munduko mapari begira, azaldu zidaten aspaldi Europatik Ameriketara eraman zituztela afrikarrak, eta esklabo gisa saltzen zituztela, oso indartsuak zirelako. Nik ordura arte pentsatzen nuen beltzak Afrikoak izateaz gain, Estatu Batuetako jatorrizko herritarrak ere bazirela, pelikuletan ikusten nituelako.

Ordutik gauza asko ikasi dut. Ikasi dut “Amerika deskubritzea” zer izan zen, eta gerren atzean herrialdeen arteko borrorak baino zerbait gehiago egoten dela; boterea eta dirua dituenak finkatzen duela albigietako gidoia, eta jende horren egia besteena baino indartsuagoa bilakatzen dela. Gezur bat mila aldiz errepikatuta egia bihurtzen dela, eta mundua zoraturata dabilela, badakizue.

Egunero milaka mezu jasotzen ditugu komunikabideen eta sare sozialen bidez. Batzuetan, gertakariak gugandik gertu pasatuko dira, eta errazagoa izango da albiste iturri zuzenetatik edatea, baina beti izango da garrantzitsua begiak eta belarriak zabalik edukitzea. Izan ere, egiak zati asko izaten ditu, eta geuk erabaki beharko dugu gure puzzlea egiteko zein zati hartu. Ikusi beharko dugu zer duen egiatik kontatzen digutenak. Azken finean, beltzak ere badirelako Estatu Batuetako herritar. Eta geurera ere etorri daitekeelako gerra. Edo ez.

Hitzaldia:
Pisua osasun arazo bihurtzen denean

Obesitatea tratatzeko dauden teknika guztiak bertatik bertara ezagutzeko aukera.

Hizlaria: Isabel Martínez doktorea, Quirónsalud Bizkaia Ospitaleko Obesitate Unitateko koordinatzailea.

Tokia: Policlínica Durango. (Carmelitas-en komentu zaharra) Intxaurreaga kalea, 19. 48200, Durango (Bizkaia)

Eguna: urriak 25, asteazkena
Ordua: 19:00

quirónsalud.es

RPS 136/12

Hospital Quirónsalud Bizkaia
Leioa-Unbe Errepidea, 33 bis. 48950 Erandio (Bizkaia)
902 445 595

Hospital **quirónsalud**
Bizkaia